

GUaiXE.net



Zabaleta
buruz buruko
txapelketan



Kirolak >> 10

Gurasoak eta irakasleak LOMCE
legearen eta Nafarroako
Gobernuaren hezkuntzako
murrizketen kontra protestan



Sakanerria >> 8

Kultur
artekotasun
jaia bihar
Lakuntzan >> 5

Gaur mustuko
dute Ximona
gaztetxea
Iturmendin

Herrian San Migel
festak ospatuko dira
asteburuan >> 7

Altsasuko
antzerki
amateur
zikloa, bihartik

Sarrerarekin
afaltzeko %15eko
deskontua lor daiteke
7 jatetxetan >> 15

Goi tentsioko
linearen kontra
bizikletan >> 6



Hainbat arlotako 30 bat pertsona bildu ziren astearteko bileran.

Sozio-ekonomia Behatokia eratu da

>> 3

Etxarriko Udala
erabakitze eskubideari
buruz ariko da gaur

>> 7

Konposta
egiteko
3.200 familia
Sakanan

>> 5

Sakanan bizi
eta erosi,
Abian-en
gomendioa

>> 5



Altsasun,
2013ko
maiatzak 11,
18 eta 25,
eta ekainak 8

%15eko
deskontua
afarian lortiko
kultur sarrera
erakutsita

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Usua
ZORIONAK politte!
Urte bat jadanik! Muxu handi-handi bat gehien maite zaituzten lehen-gusin, eta izebaren partez!

Ainetz
ZORIONAK Ainetz! 3 urte bete dituzu dagoneko, zein azkar handitzen ari zaren! Muxu haundi bat potxolo!

Asier
ZORIONAK Asier etxeko guztion partetik!! Bete bezain alai jarrai dezazun. Muxuak, potxolo.

Boltio
ZORIONAK lagun! Luis, Oihan eta gainontzeko guztiakin ospatuko dugu herri honen askatasuna. Jo ta ke! Zure lagunak.

Ainetz
Zorionak! Zer uste zenuen zure urtebetetze eguna ahaztu behar zitzaigula? Nola ahaztuko gara ba, gure etxeko printzeaz? Muxu handi bat Lizarraga eta Arbizuko familiaren partetik.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

maiatzak

10-16

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Azken Oihu. Maiatzaren 10ean, larunbatean, 00:30ean, Irurtzongo Pikuxar euskal txokoan.

Shock Waves eta Segismundo Toxicomano. Maiatzaren 11n, larunbatean, 23:00etan, Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

Coral de Camara de Pamplona. Maiatzaren 12an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan.

Antzerkia

Geriatraco casi perfecto. Maiatzaren 11n, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Karretabidea antzerki taldea.**



Ikuskizuna

Sabel-hiztuna. Maiatzaren 11n,

larunbatean, 19:30ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bideoa

Apaizac obeto. Maiatzaren 14an, asteartean, 19:00etan, Irurtzongo kultur etxean.

Dokumentalak

Apaizac obeto. Maiatzaren 16an, ostegunean, 20:00etan Etxarriko kultur etxean. Jon Maia bertan izanen da.

Casas Viejas. 5 años de ocupación y autogestión. Maiatzaren 16an, ostegunean, 20:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

Zinema

La trama. Maiatzaren 10ean, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 12an, domekan, 20:10ean Altsasuko

Iortia kultur gunean.

Txirindula irteerak

Irantzuko monastegia. Maiatzaren 12an, domekan, 7:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 82 km.

Burunda Mendi Bizikleta taldea.

Ibilbidea

Toponimia ibilbidea. Maiatzaren 11n, larunbatean, 9:00etan Etxarri Aranazko Basopokaletik Auntzetxera.

Erakusketak

Pintura tailerra. Maiatzaren 11n, larunbatean, 18:00etatik 20:00etara eta igandean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean.

Koldo Arnanz arte eskola. Maiatzaren 26ra arte Altsasuko Iortia kultur gunean.

Itsasotik oihanera. Maiatzaren 14tik 26ra Irurtzongo kultur etxean.

Hitzaldiak

El conquistador del fin del mundo. Maiatzaren 16an, ostegunean, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean.
Hizlaria: David Seco.

Literatura

Descripción de cuadros para Guillermo. Maiatzaren 10ean, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Olerki liburu aurkezpena.**

La tregua. Maiatzaren 10ean, ostiralean, 21:00etan Olatzagutiko liburutegian.

Tailerrak

Konpostatzen ikasteko ikastaroak. Maiatzaren 10ean, ostiralean, 11:00etan eta 19:00etan, Urdiango udaletxean.

Musika. Maiatzaren 11n, larunbatean, 18:00etatik 19:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Nekazaritza ekologikoa. Maiatzaren 16an, ostegunean, 16:00etatik 19:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Ximona gaztetxearen mustutzea. Maiatzaren 10ean, ostiralean, 19:00etatik aurrera Iturmendin.

Kulturartekotasun jaia. Maiatzaren 11n, larunbatean, 17:00etatik aurrera Lakuntzako plazan.

Planta T, kosmetika naturala.

Maiatzaren 15ean, asteazkenean 17:00etatik 19:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. +14 urte.

Deialdiak

Txirrinka SOS. Maiatzaren 10ean, ostiralean, 17:30ean, Altsasutik Irurtzuna. Maiatzaren 11n, larunbatean, 11:00etan Irurtzundik Garesera. **Autopista Elektrikorik ez.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 10ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Autopista elektrikorik ez. Maiatzaren 10ean, ostiralean, 20:30ean, Irurtzongo plazan.

Erabakitzeko eskubidearen inguruko pleno berezia. Maiatzaren 10ean, ostiralean, 20:30ean, Etxarri Aranazko udaletxean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 12an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Maiatzaren 13an, astelehenean, 15:30ean, Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Bazkide zozketa



Non erabili

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

Beleixeguaixe txartela

berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10-eko deskontua.

LURESU

ALTSASU

%10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu

MENDIGAIN URDAIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50€-ko erosketarekin gero etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100€-KO erosketarekin, %15eko deskontua.

URRUTIA HARATEGIA

IRURTZUN

50€-ko erosketarekin gero etxeko produktua opari.

KIROLDEGIKO TABERNA

ARBIZU

Bazkarietan edo afarietan kopa doan.

ETXARRI KOMERTZIALA

ETXARRI ARANATZ %10eko deskontua koltxoietan.



MAIATZEKO SARIAK:

1- EKAINBERRIRA JOATEKO 2 SARRERA + KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
2- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO

AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
3- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
4- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1

LANGABEZIA %3,92 BEHERA: Apirilean 69 sakandarrek lana opatu zuten Altsasuko enplegu bulegoaren bidez. Bigarren hilabetez langabeziak behera egin du bulego-

an. 1.689 langabetu daude. Bestalde, aurreko hilabetean 378 kontratu itxi ziren, horietatik 22 mugagabeak ziren.

ezkaatza >>

SAKANA

Sakanak elkarlana eta ahalegina merezi ditu

Plan estrategikoa egiteko asmoz, asteartean bildu zen aurreneko Sakana Sozio-ekonomia Behatokia

Dendari elkarre, enpresari elkarre, toki-administrazio, ikastetxe- eta ordezkariek, alderdi eta sindikatu- eta gizarte zerbitzuetako, ekonomia sozialeko enpresetako kideak eta beste hainbat ordezkariek bildu ziren asteartean. Guztiak ere ados zeuden ibarra dagoen egoeratik ateratzeko apustua egin behar zela. Haiek eratu zuten Sakana Sozio-ekonomia Behatokia (SSB).

Deialdia Sakana Garapen Agentziak, Cederna-Garalurrek eta Sakantzen Sareak egin zuten, elkarrekin. Batzartutako guztiei abiapuntu bat jarri zieten deitzaileek: gaur egungo egoeratik abiatuta enplegua sortzea, jasangarritasun sozialean, ekonomikoan eta ingurumenekoan oinarrituta.

Bileran landu daitezkeen hainbat arlo estrategikoa aipatu ziren, baina denak ezin hartu eta indarrak lautuan jartzea erabaki zuten: turismoa, lehen sektorea, industria-zerbitzuak eta Energia (biomasa, energia eraginkortasuna eta, horri lotuta, eraikuntza). Gainera, lan ildo horietan guztietan zeharka hezkuntza eta komertzioa



Sakanako 30 eragile inguru bildu ziren Sakana Garapen Agentziak, Cederna-Garalurrek eta Sakantzen Sareak deitutako bileran.

landuko dira. Horretarako konpromisoa hartu zuten bildutakoek.

Astearteko bilkuraren ondoren, lan ildo estrategikoa bakoitza landuko duten lantalde bana sortzea erabaki zen. Arlo bakoitzean aditua edo aritua den jendea erakartzeko lana jarri zioten euren buruari bileran izan zirenak. Asmoa da lan talde bakoitza ekarpenak egiteko borondatea duten 10-15 sakandarrek osatzea. Bi astetan lan taldeak osatuta egotea nahi lukete.

Parte-hartzailea

Behin lantaldeak osatuta arlo edo sektore bakoitzaren diagnostia egin beharko dute. Sakontasuna eskatuko zaie, errealitatearen ahalik eta analisi zorrotziena egitea. Izan ere, horretan oinarrituta lantaldeek diagnostia egin beharko dute, noranzkoak eta bideak markatu beharko dituen. Horiek Behatokiari aurkeztuko zaizkio. Behatokiaren oniritzia jaso ondoren ekin-tza plana egiteari ekinen diote lau lantaldeek. Lan hori ere Behato-

kiari aurkeztu beharko diote.

Une horretan Sakanara zabalduko da, herritarrek ekarpenak egiteko (parte hartze prozesua hasieratik zabaltzeko aukera aztertzen ari dira). Ondoren Behatoki-ko eragile guztien artean adostasunak lortzera joko da. Hobetsiko dutena izanen da Sakanarako plan estrategikoa.

Behatoki-ko kideek sei hilabete-ko langintza dute aurrean. Onduko duten plan estrategikoko ekin-tza eta proiektu zehatzei epeak

jarri eta haiek zehaztuko dute aurrerazeinek eramanen dituzten. Administrazioari eta enpresei eraginen dien plangintza izanen da; publikoa eta pribatua Sakanaren aldeko elkarlanean jartzeko plangintza da sortuko dutena. 10 urterako plangintza izanen da. Behin lan hori eginda, egoerak aldatzen direnez, Behatokia plana gainbegiratu eta errebisatzeko elkartuko da, horregatik, egiturari eutsiko dio, deitzaileek guztia prozesu bat bezala ikusten baitute.



Deialdiaren arrazoiak



Joseba Garmendia, Iker Manterola eta Susana Mendinueta.

“Hausnarketa eta elkarlan baten beharra dago Sakanan bere etorkizunari forma ematen hasteko”. Horregatik egin zuten astearteko deialdia Sakana Garapen Agentziak, Cederna-Garalurrek eta Sakantzen Sareak, hiruen estrategien bateratzearen ondorioz. **Sakanako Garapen Agentziak** Iker Manterolak gogorarazi zuen ibarrerako plan estrategikoa baten eskaera aspaldikoa dela eta enpresari- elkarrekin eta krisi mahaiaik ere eskaera bera egin zutela.

Manterolaren esanetan “Behatokiak Sakana ordezkatuko duen

foro zabal bat izan nahi du”. Behatokiak plan estrategikoa bidez “denon artean Sakana eraikitze-ko helburua izanen du. Horretarako, egitura produktiboa indartu eta herritar guztien ongizatea bultzatuko du”.

Cederna-Garalurreko Susana Mendinueta esan zuen erabakia dutela Nafarroa Mendialdeko agente sozio-ekonomikoen parte hartzea Cederna-Garalurren funtzionamenduan integratzea. “Mendialdeko eskualdeek bere nortasuna dutela ikusita, norberaren berezitasunetara egokitzea dagokigu.

Gure ustez Sakanan aukera hau Plan Estrategikoa bidez etor daiteke”.

Mendinueta ziurtatu zuenez, “Plan Estrategikoa sortu dezakeen eskualdeko agente sozio-ekonomikoen elkarlan dinamika da gure- takerako garrantzitsua. Haren bidez posible izanen da gerorako beste dinamika batzuk sortzea eskualdean”. Handik garapenerako batzorde iraunkor bat sortzea egoki joko luke. Mendinueta elkarlanerako apustua berretsi zuen.

Sakantzen Sareko Joseba Garmendiak gogora ekarri zuen haien filosofia ibarrarekiko konpromisoa dela eta elkarlana dutela funtzionamendu modua. Horregatik, “eragile ezberdinak bilduko dituen hausnarketarako marko bat beharrezkotzat jotzen dugu. Sozio-ekonomia Behatokia oso tresna baliotsua izan daiteke”. Plan estrategikoa beharra ere azpimarratu zuen Garmendiak. Hausnarketa prozesuak Sakanako indarguneak eta aukerak identifikatzeko baliagarria izanen dela nabarmendu zuen: “horrek jende gehiago proiektuak martxan jarri eta enplegua sortzeko animatu dezake”.

ARKITEKTOA

maria pilar bakaikoa

ERAIKIN BERRI ZEIN ZAHARBERRITZE LANAK

Isasia Industrialdea A1 behea
31800 | Altsasu | Nafarroa
650 831 816
p.bakaiku@coavn.org

Proiektu bakoitza irizpide bioklimatikoei, bioeraikuntza eta tokian tokiko arkitekturari egokitzen saiatuko gara



Zoila Berastegi

astekoa

Maiatzaren lehena eta ahateak

Lehenengo ahateak hegaldia has-tean bidea zabalitzen dio bigarren ahateari. Bigarrenak bidea garbitzen dio hirugarrenari. Azken honen hegaldiak laguntzen dio laugarrenari. Laugarren ahateak bosgarrenari... Puntan dagoen ahatea nekatzen denean, bere lekua beste bati uzten dio eta V itxura duen hegaldiaren bukaera-

ra abiatzen da. Etengabe txandakatzen dira nekatu ahala; aurretik atzera eta atzetik aurrera. Inorkez du bere burua "super-ahate"-tzat aurrean hegan egiteagatik, ezta "azpi-ahate"-tzat bukaeran hegan egiteagatik (Eduardo Galeano *Los hijos de los días*).

Maiatzaren bata egun gorria da gure egutegietan, ez dakit ordea

oso ondozergatik: komunismo eta sozialismoarekin zerikusia izan dezakeelako, odol usaina duelako edo jai dugulako. Baliteke aukera guztiak langileen nazioarteko egunaren baitan egotea. Izan ere, zortzi orduko lanordua aldarrikatzeko 1886an egin zen greba orokorrrak eta ondorengo egunetako gertakariak 5 langileren erahilke-

ta ekarri zuten Txikagon. Ehiztariak bost ahateren hegaldiari amaiera eman bazioten ere, gainontzeko ahateak hegan jarraitu zuten, txandakatuz; aurrekoak atzera eta atzekoak aurrera; galarak kementasunez ordezkatzuz.

Gaur egungo mapari so eginez, panorama kaxkarra zeru zabalean: XIX. mendeko aldarrikapenak

indarrean baitaude oraindik. Baina ez da langileen eskubideen galera okerrera. Badago okerragorik, izan ere, zerura begiratzean ez da V itxurako ahate multzorik somatzen. Ehiztariak hor dabilta trebetsu, baina arazoa ez da ahaterik ez dagoela, elkarrekin ez daudela baizik; elkarrekin ez gaudela baizik.

hara zer dien

Dokumental humanista baten gomendioa: Bost kromosoma

Gaur hausnartzeko dokumental humanista bat gomendatzen dut.

Galera baten (5 kromosomako zatitxo baten) istorioa da, bilaketa batena (erantzunena eta diagnosiarena) eta topaketa batena (bizitza ikusi eta ulertzeko beste modu batena, argiarekin eta gainditzea).

Poesia bat da irudietan, aparteko begirada baten gaineko poesia bat. Ezberdintasunen, gaitasunen, esperantzaren, baikortasunaren, zailtasunen, aurre egitearen, maitagarrien, argia

duen pertsonen, magiaren, emozioen, bizitza beraren inguruan hausnartzeko.

Maria Ripollen eta Lisa Pramen (zuzendaria eta argazkilaria eta Andrearen ama, argazkiko begi beltzen haurra) helburua istorio intimo eta pertsonala kontatzea da, eta ahalik eta pertsona gehien sentsibilizatzea; baita identifikatuak sentitzen diren familiengana hurbiltzea ere.

Esaldi batzuk eta fantasiako eszenak:

"Maitasun handiz egindako

proiektua da eta maitasun handia bueltatzen didana, sakona eta eskuzabala". Maria Ripollek esana. Zuzendaritza "suabe eta lasaiarekin", "eskuz egina" bi urteko filmaketan.

"Jendeak positiboki harritzen zaitu, harategiko eszena dokumentalaren ondorioaren modukoa da: begiak pixka bat zabalik bizi beharko genuke, inguratzen gaituen guztia begiratu, bestela kaxoi laukian gelditzen gara, denok berdina izan behar dugula pentsatzen dugu baina ez gara,

pertsona mota asko dago". Lisa Prameta azokako harakinak esana, eszena bikain batean.

Adi ere muntatzailearen musikari: Sergi Cameron, bikaina eta eskuzabaltasunez utzi duen Muchachitorea. "(Dokumentalaren) filmaketako zailena atzera egitea izan da, berriro sentitzea, batek aurrera egin nahi du, ez du orainaldian egon nahi, gogorra izan da iragane-ko emozioak lantzea". Lisa Pramenek esana.

Dokumentala RTVE loturan

dago, eta hemen zapaldu : Bost kromosoma (Espainiako lehen Webdoc-a).

PASA eta IKUS ezazue, harribitxi bat da.

Eta ez utzi LIBURU BELTZ TXIKIA ikusteari eta irakurtzeari, non Lisak Andrearendako eguneroko bat idazten duen, EMOZIOZ beteriko marrazkiz, argazkiz eta testuez betea.

Sakanako Ezgaituen Elkarte

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Berrialagun izateko arrazoi pare bat

Pello Urzelai, Berriako kazetaria

Datorren garagarrilaren 21ean, 10 urte beteko ditu Berria egunkariak, eta irakurleekin batera ospatu nahi izan dugu. Ospatu bai, baina etorkizunera begira jarrita, hamarnaka betetzen jarraitu nahi dugulako. Eta Berriaren etorkizuna oparo

bihurtzeko, Berrialagunak biltzari ekin diogu. Zer da Berrialaguna izatea? Honela laburbilduko nuke: Berriak bere zeregin informatiboa, kulturala eta euskararen aldekoa egiten jarraitzea nahi duena eta horren alde urterokarpen ekonomiko bat egiten duena da Berrialaguna.

Zertarako balio du Berrialagun izatea? Batetik, Berria Taldearen komunikazio proiektua

mantentzeko. Berria egunkaria eta bere edizio digitala (www.berria.info) dira komunikazio proiektu horren ardatz nagusiak. Baina hori baino askoz gehiago ere bada: euskararen normalizaziorako tresna den Kontseiluaren parte, kultur eragile, herrialdeetako tokiko informazioa (Araba, Bizkai, Gipuzkoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko Hitzak), eskualdeetako

tokiko informazioaren aldeko Hitzak proiektuaren parte, haurren heziketaren laguntzaile (Mantangorri), Hamaika Telebistaren parte, iritzi-emaile zorrotz eta independente, ekimenean bultzatzaile... Berrialaguna izateak proiektu horiek guztiak aurrera ateratzeko balio du. Berrialagunen ekarpena funtsezkoa da Euskal Herri osorako sortutako komunikazio proiektu bilduma

hau garatu ahal izateko.

Bestetik, Berria erraz eskuratzeko balio du Berrialagun izateak. Aukeran: etxean edo etxe ondoko kioskoan paperean jasotzeko edo pdf bertsioan jaso eta irakurtzeko. Eta, horrekin batera, bazkide gisa eskaintzak eta zozketak baliatzeko: sarrerak, jatetxeak, egonaldiak, bidaiak... Egin zaitez Berrialagun eta segi dezagun hamarnaka kontatzen.

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publicitate@guaixe.net

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea: Garazi Garzia Mauleon

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

HASI DIRA EZKILA-ERREPIKAK: Aurreko ostiralean hasi ziren Enrike Zelaia, Asier Beramendi, Iñaki Mendoza, Iñaki Bengoetxea eta Jesus Bengoetxea

errepika jotzen. Lau minutuko txandatan aritu ziren guztiak aurreneko errepikan. Irailaren 14ra arte badute zeregirik.

sakanerria >>

SAKANA

Sakanan bizi, Sakanan erosi

Lelo hori du Abian-ek martxan jarri duen kanpaina berria, komertzioaren aldekoa

Abian plataformak ibarreko komertzioaren eraketak egiteko deia egin du: "Sakanan kontsumitzeak gure komertzioaren bizirau-pena ekartzen du eta aldi berean ibarrarena ere. Izan arduratsua eta murgildu eskualdean". Sakandarrak bertako komertzioarekin duen konpromisoa bultzatzeko helburuz jarri du martxan kanpai-

na plataformak. Izan ere, Abian-eko kideen iritziz, "Sakanan Bizi eta Lan leloan sinesten badugu, gure jarrerak aldatu eta hitzetik ekintzetara pasatu behar dugu".

Abian-etik gogora ekarri dute komertzioa beti izan dela gure herrietan bizitzaren sinonimoa eta horrela izaten jarraitzea nahi dute. "Kirol jarduerak, festak, beste sektoreen aldarrikapenak eta beste babestu dituzte eta egoera okerretan ere laguntzen jarraitzen dute".

Plataformako kideek azaldu dutenez, sakandar langabeen erdia sektore horretakoa da. Herrietan itxi diren denda, taberna eta autonomoen jarduerak ugariak ekarri dituzte gogora. "Beste sektoreetan ez bezala, isilik eta bakarrik joan dira langabeziara. Gaur mantentzen direnak oso egoera txarrean daude eta askok itxiera hurbilegi dute".

Plataformako kideen iritziz, "gaur egun Sakanako biztanleria guztiak argi dauka egoerazail baten



Abian-eko Joakina eta Mikeldiren artean, dendarri elkarteko Alberto.

aurrean gaudela eta aurrera pausak ematen jarraitu behar dugu-

la". Sakanaren etorkizunaren defentsa egitera deitu du Abian-ek.



3.000 familiatik gora konposta aukeratu dute

Informazio kanpaina oraindik bukatu ez bada ere, Mank-ek esku artean dituen datuen arabera ibarreko 3.200 bat familia dira konpostaren alde egin dutenak. 2.000 inguruk auzo-konposta eginen dute haien hondakin organikoekin eta beste 900 familiak, berriz, euren

etxeetan eginen dute konposta. Horiei aurretik konposta egiten zeuden 300 familiak batu behar zaizkie. Hasiara batean aurreikusituen zitutzen 2.000 familien kopurua gainditu egin da, beraz.

Mank-en kopurua handitu daitekeela uste dute, informazio kan-



Halako 42 etxola eginen dira.

paina herri guztietan ez delako bukatu eta Altsasun, esaterako ez delako hasi. Hala ere, Altsasuko Alde Zaharreko bizilagun talde batek auzo-konposta egiteko etxola bat hilerri inguruan jartzea eskatu du. Hori eta beste 41 etxola erosi ditu Mank-ek ibarrean barnajartzeko. Auzo-konpost etxola horiek 40 familiek erabiltzeko modua ematen dute. Eskatzen duten familien kopurua 20 bitartekoa denean plas-

tikozko 800 litrotako konpostagai-luak jarriko ditu Mank-ek, bana-bana, binaka edo eskaerari erantzuteko behar den kopurua. Sakanan barnajartzeko tamaina horretako 800 ontzi erosi ditu.

Sistema berria garagarzaro erdialdean jarri nahi luke martxan. Igoarkinek diseinatutako etxolak eginen duen enpresa aukeratu eta lanak ematea falta da. Zintzilikarioak Garciandia egiten ari da.



Hiru sakandar Idiazabaleko Kontseilu Arautzailean

EHNE-Artzain gaztak kontseilu arautzaileko 12 aulkietatik 8 eskuratu ditu. Gainontzeko lau aulkia gaztagintzan ari diren industria-ko ordezkariak bete dituzte.

Idiazabal Jatorri Izendapeneko Kontseilu Arautzaileko lehendakari karguan Jose Mari Ustarroz uhartearrak jarraituko du. Kontseiluan ere Aitor Campion Ganboa arbazuarra (urtean 20.000 litro esne

baino gehiago ekoizten duten nafarrik ordezkaturik) eta Jose Manuel Araña Iriarte arbizurra (haien ustiatetik esnearekin bakarrik gazta eginen duten ekoizleak ordezkaturik). Azken horren ordezkoa Iosu Ostiza Irigoien urdiaindarra da. Carlos Aramendia Bengoetxea altsasuarra berriz, urtean 10.000 eta 20.000 litro esne artean ekoizten dutenen ordezkoa da.

Lakuntza

Denak lakuntzarrak

Bihar, larunbata, 17:00etatik aurrera Kulturartekotasun festa ospatuko da plazan

Txingurriye, laguntza eta aisialdi taldeak antolatuta, bihar jatorri ezberdinetako lakuntzarrak bilduko dituen festa ospatuko da. Plazara hurbiltzen diren lakuntzarrak eskaintza zabala izanen dute. Batetik gaztetxoendako jolasak izanen dira. Bestetik, sukaldaritza tailerrak daude. Horrekin bate-

ra, erakusketa izanen da. Guztiak elkarrekin gozatzeko moduko egitaraua.

Gainera, azken asteetan, astean bitan elkartu izan dira lakuntzarrak. Ordu bateko saioetan Senegal, Maroko, Ertamerika eta Euskal Herriko dantzak erakutsi dizkiote elkarri. Bihar jatorri ezberdinetako dantza erakustaldiarekin gozatzeko aukera izanen da.

Kulturille 2013

Larunbatean gure sinboloei egin-dako omenaldiarekin abiatu zen Lakuntzako Kulturille. Biharko Kulturarteko Jaiak eretokia du Kulturilleko programazioan. Udalak eta herriko eragileek antolatutako egitaraua garagarriaren 19ra arte luzatuko da. Iragarritakoen artean daude hilaren 25erako Parkea Martxan taldeak antolatutako kontzertuak, Elai Alai dantza taldearen eguna, Luis Fuentes eskolaren eguna, musika eskolako ikasleen emanaldiak eta beste.

Beti dago lehen aldi bat edozertarako...

Ezberdin jatera ausartzeko. Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai, erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko, adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeko unea. Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerarako balio du.

eroski.es

EROSKI online

zurekin

SAKANA

Ibarra aukeratu dute goi tentsioko linea berria jartzeko

Salaketa bizikleta martxaren adar bat gaur abiatuko da Altsasutik 17:30ean

Red Electrica Españolak proiektua eta ingurumen inpaktu egitasmoa aurkeztu dizkio Industria Ministerioari. Espainiako administrazioak ikututako udal eta kontzejuei haien berri eman behar die orain. Hura jasotzen dutenean 30 eguneko epea zabalduko da helegiteak aurkezteko. Egitasmoak aurrera egingen balu 2016 akaberan edo 2017 hasieran hasiko lirake lanak. 400 kV-eko linea proiektuak ikututako udal eta kontzejuetako ordezkariekin bildu dira REEko kideak. Bileretan ere Autopista elektrikorik ez! plataformakoak izan ziren.

Plataformako kideek uste dute Ministerioak aurki aurkeztuko dizkiela proiektuak toki-administrazioei. Hala ere, datekin kezkatuta daude plataformako kideak, aurreproiektua joan den urteko agorriaren 5ean aurkeztu zuelako, jende guztia oporretan zegoenean.

Bitartean, Espainiako Gobernuak 2014-2020 aldirako planifikazio elektriko berria egiten ari da. Horregatik, Autopista elektrikorik ez! plataformak ez du ulertzen zergatik aurkezten duen REE

Bizikleta martxa



Gaur abiatuko da goi tentsioko linearen kontrako bizikleta martxa. Leitzatik adar bat abiatuko da, bestea, 17:30ean Altsasutik. Herriz herri pasako dira 20:00etan Irurtzunera iristeko. 20:30ean kontzentrazioa egin ondoren afaria eta kontzertua izanen dira. Larunbatean Irurtzun eta Gares arteko ibilbidea egingen dute txirridulariek, 11:00etan abiatuta. Bukeraren, atzera ere, ekitaldiak izanen dira. Martxaren azken etapa igandean izanen da. 10:00etan Garestik abiatuko dira eguerdian Deikaztelura iristeko. Han ekitaldia eta bazkaria egingen dira. Plataformatik bizikleta martxan parte hartzeko deia luzatu dute.

halako proiektu "txikitzaile eta erraldoi bat, planifikazio elektriko berria egiteko dagoenean".

Sakanatik

Goi tentsioko linea proiektuak ibarra mutur batetik bestera zeharkatzen du. Deikaztelutik etorririko litzatekeen linea Aizkorbetik sartuko litzateke Sakanan eta egungo 220 kV-ko linearen ibilbidea segituz Altsasutik barna,

Altzaniatik joko luke Itsasora.

Plataformatik jakinarazi digutenez, REEko linea Sakanatik pasatzea erabaki du ingurumen inpaktu txikiagoa sortzen duelako. Plataformatik jakinarazi digutenez, REE-ren asmoa litzateke 400 kV-eko linea berria 220koen paraleloki eraikitzea (100 metrora) eta lanak despeditu ondoren aztertzea haietako bat kendu edo ez. Dorreek 50-55 metro luze lukete.

>> Altsasu

Boto-ordezkatzea egiteko, NaBaik erregalamendu organiko proposamena egin du

Altsasuko Udalak ez du araudi organikorik. Horren ondorioz, kasu jakin batzuetan, udal bilkurretara joan ezin duten zinegotziek ezin dute haien botoa beste zinegotzi baten esku utzi. Hau da, ezin da boto-ordezkatzea egin. Aukera hori udalean eskatu dute legegintzaldi honetan talde batek baino gehiagok.

NaBaiko Unai Hualdek azaldu duenez, "araudi organikoa udalaren aspaldiko egiteko bat da. Gure taldeak aurreko legegintzaldian zirriborro-proposamen bat egin zuen. Horretarako hainbat udalen araudi hartu genituen erreferen-



PSNko 2 zinegotziak ez doaz plenora.

tzia gisa, bereziki Berriozarkoa". Hualdek jakinarazi digunez, zirriborro hura eguneratu du NaBaik. 129 artikulua dituen Udaleko Erregalamendu Organiko proposamena aurkeztu du.

Hualdek argitu duenez, "epe-

jakin batean egin eta erregalamenduaren onarpenarekin bukatuko litzatekeen eztabaida baterako lehen proposamena da. Besteak beste Foru Lege berriak jasotzen duen boto-ordezkatze aukera proposatzen da." NaBaik alkatzeko taldeari eskatu dio proposamena udaleko gainontzeko taldeei zabaltzea eta "ahalik eta azkarren" Antolakuntza Batzordea biltzeko deia egitea eskatu dio, "idazkaria bertan dela, zenbait saiotan aipatu zirriborroaren gainean eztabaidatzeko". Han adostu ondoren, udalbatzak berrestea nahiko luke NaBaik.

SAKANA

Hautetsien sareak AHT-ren birplanteamenduarekin pozik

Hala ere, martxan diren lanak gelditzeko eskatu dute. Hilaren 25ean, 19:00etan, Tafallan egingen den manifestazioan parte hartzera deitu dute

Sakana eta Nafarroako hainbat hautetsi bere baitan hartzen duen Nafarroako Trenaren aldeko eta AHT-ren kontrako Hautetsien sareak adierazi duenez, pozik daude Nafarroako abiadura han-

diko korridorearen birplanteamenduarekin. Pozaren argudioa Espainiako eta Nafarroako Gobernuek egindako iragarpena da: herrialdeko korridorearen zati handiengan funtzio anitzeko eta Europako zabalerara egokitutako sarea ezarriko da.

Hautetsien sareak gogorarazi du adituek eta gizartearen gehien-

goa aukera horren alde zegoela: "azpiegiturak ahalik eta gehien aprobetxatzea da, gure ikuspuntutik, baliabideak errentagarria bihurtzeko eta optimizatzeo erarik hobereana". Hala ere, hautetsi sareak kritikatu egin du Castejon eta Tafalla arten martxan dauden obrak jarraitzea. "Erokeriatzat eta onartezintzat" jo dute "egungo trenbidearen ondoan beste trenbide bat egitea, non orografia erabat laua eta bihurtzerik gabekoa den".

MOTZEAN

Nekazarien eguneko ospakizunak

Heldu den asteazkenean, San Isidro egunean, nekazarien patroia ospatuko da. Hori dela eta, eguerdian Egia-rrerako Itxasperi ermitan meza izanen da, hildako arakildarren aldeko elizkizuna. Hura despeditu ondoren, ibarreko soro eta larreak bedeinkatuko dituzte. Meza ondoren Arakilgo Udalak otamena eskainiko die bildutakoei. Asteazken arratsaldean, bestalde, auzatea izanen da plazan eta ondoren afaltzera bilduko dira. Asteazkenaren ondoren, heldu den igandean arakildarrak berriro biltzeko aukera izanen dute. Aralarko santutegian izanen da. Mezaren ondoren herri bazkaria izanen da. Izena emateko epea gaur despeditzenda. Erroldatuek 10 euro ordaindu behar dituzte, ez daudenak 23.

Idiazabalgo podiumeko 2 postu sakandarrendako

Igandean ospatu zen XVI. Gazta eguna Idiazabalen. Egitarau zabalaren barruan gazten herri dastatzea izan zen. Herritarren boto gehien Goiburu gazta idiazabaldarrendako izan zen. Bigarren Arruazuko Albigaztandegiagelditu zen eta hirugarrena Unanuko Juananeko Borda gaztandegia.

Hondakindegian lanak egiteko zain

Ba dira bi urte Sakanako Mankomunitatea Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza baten zain dagoela. Arbizuko zaborteziaren zati bat behin betiko itxi behar da. Horretarako 20.000 metro karratuko azalera estali behar da. Nafarroako Gobernuak behin betiko baimena eman zain dago Mank lan horiek egiteko.

Tasunbinsak gobernuaren laguntza jasoko du

Hirugarren urtez jarraian Nafarroako Gobernuak 3,5 milioi euro emanen dizkio Tasubinsari. Diru-laguntza horrekin enpresak dituen 11 okupazio-zentro berezietako 600 lanpostuak finantzatzeko aukera izanen da. Zentro horietako bat Lakuntzandago. Lan taileraz aparte, Lakuntzako Tasubinsaren egoitzan okupazio-terapia gela ere badago.

Otsoen faltan, jaguarrak

Apirilaren 8tik maiatzaren 5a bitartean Jaguar autogile britainiarrak Nafarroa aukeratu du bere F-Type V6 autoa aurkezteko. Kazetariak Los Arcosko Nafarroako Zirkuituan proba egin eta gero autoak Nafarroako errepideetan barna probatzeko aukera izan dute. Prentsa espezializatuko kazetari ugari ibili dira haiek gidatzen eta batzuk Lizarraga eta Urbasako portuak aukeratu izan dituzte luxuzko bi plaza berria ezagutzeko.



Basoixi argitzeko deialdia

Basoixiko dameroko lauki batean baso-lanak egiten bi saio egin ditu Auzolan taldeak. Inguru hura argitzen, garbitzen ari dira, urteak biltziren halakorik egiten ez zela inguru hartan eta oso sarri daudelako zuhaitz eta zuhaixkak. Egiteko asko dagoenez Auzolan taldeak beste bi saio antolatu ditu, maiatzaren 18 eta 25erako, 8:00etatik aurrera. Altsasuarrak herriaren alde lan egitera animatu dituzte Auzolan taldekoak. Gosaria haien kontu izanen dela ere azaldu dute. Izena eman nahi duenak lortia kultur gunetik pasa edo 012 telefonora hots egin behar du.

Errepresioaren kontrako batzarra

Gaur, ostirala, 19:30etan Gure-Etxea eraikinean

Errepresioarekin bukatu nahi duten guztiei gaurko batzarrean parte hartzera deitu dituzte. Aurreratu dutenez, besteak beste, herriko gazte baten atxiloketaz, udalean errepresioaren kontra sortutako batzordeaz, indar polizialen azken "getakari larrien" inguruan eta Ospa egunaren egitarauaren inguruan hitz egingen da batzarrean.

Hanka galdu du motokultorea gainera erortzean

Atzo, 17:15 aldera, motokultorea gurdira igotzen ari zela, oreka galdu eta makina hanka gainera erori zitzaion. Motokultorea mozketak sakonak egin zizkion hankan. 78 urteko F.G.G.-ri suhiltzaileek kendu zioten makina gainetik. Hura artatzera zaintzako medikua joan zen eta zaurien larritasuna ikusirik medikalizatutako helikopteroa eskatu zuen, gizona Iruñeko ospitalera eramateko. DYAKo kideak ere laguntzen ari ziren. Iruñean ezin izan zuten ezer egin hanka salbatzeko.

Bi sakandar Euskararen Nafar Kontseiluan

Nafarroako Gobernuak Euskararen Nafar Kontseiluaren hamasei kidearen izendapena onartu du gaurko bilkuran. Lau urterako izendapena da. Horien artean bi sakandar daude: Pello Mariñelarena Martinez etxarriarra, Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkari gisa ariko dena eta Lizarra ikastolako zuzendaria den Josu Reparaz Leiza. Euskararen nahiz euskal kulturaren alorrean ospe handia duten izendatutako zazpi pertsonetako bat da arbizuarra.

» Irurtzun

Bierrik-eko bazkide egiteko kanpaina berezia eginen du Aizpeak

Irurtzunen euskarak bizi duen egoera hobetzeko lan egiten du aspalditik Aizpea euskara taldeak. Hainbat arlotan makina bat jarduera garatu ditu. Hizkuntzaren normalizaziorako ezinbesteko jotzen ditu euskarazko hedabideak.

Horregatik, euskara taldean ezinegon sortu zen Bierrik fundazioak astekaria soilik bazkideei banatzea erabaki zuenean. Aizpeakoek primeran ulertzen dute Bierrik-en larritasun ekonomikoek gerrikoa estuzera eraman dutela eta, ondorioz, banaketa zabalaren orde, soilik bazkide direnei uzten zaiela etxean, gainontzekoek toki publikoetan eskuratu dezaketelarik.

KANPAINA

Hedabideek eta hizkuntzaren aurrerabidean duen eraginaz jakitun, Aizpea euskara taldeak Bierrik fundazioarekin harremanetan jarri zen. Irurtzunen euskararen aurrerabiderako tresna ezinbestekotzat jo dute astekaria.

Horregatik, fundazioari eskatu diote Irurtzunen lehengo banaketa sistemara bueltatzea eta bazkideez direnei banatzea. Aizpea euskara taldea banaketa horren kostua ordaindu egiten du. Aurten soilik. Horrekin batera euskaltzale irurtzundarrek Bierrik fundazioaren aldeko bazkide kanpaina berezia aurrera eramanen dute. Informazio orria banatzearekin batera Pikuxar euskal txokoan bazkide egiteko formularioa uzteko buzoia jarriko dute. www.guaixe.net atariaren bidez ere bazkide du daitekeela ere gogoraziko dute.

Bazkideen abantailak

Sakanako 80 komertzio baino gehiagotan deskontuak. Diseinu eta inpresio zerbitzuan %5eko deskontua. Errenta aitortzean bazkide kuotaren %25eko desgrabapena. Bazkideen hileroko zozketetan parte hartzea. Guaixea astero gutunontzian. Belexe 24 orduz eta www.guaixe.net unero.

» Etxarri Aranatz

Udalak gaur aztertuko du herri galdeketa eskaera

Udaletxean 20:30ean eginen den pleno berezira joateko deia egin du Etxarri 2012+1 ekimenak

Gaur pleno berezia izanen da Etxarri Aranatzko udaletxean. Erabakitze eskubidearen inguruan 360 etxarriarrek egindako eskaera

aztertuko du udalbatzak. Etxarri 2012+1 ekimenak “erabakitze eskubidea etxarriarren eskura” jarri nahi izan du sustatu duen eskaerarekin. “Ariketa demokratiko bat; benetako demokrazian oinarritu behar lukeen eskubidea

praktikara eraman nahi dugu” azaldu dute ekimenetik.

Horregatik, udalari herrigaldeketa bat egiteko eskaera luzatu diote. Galdera ere proposatu diote udalari: “Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerrria izanda,

Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?” Etxarriarrek galdera horri erantzutea nahi dute ekimeneko kideek. “Herriarrek “etorkizunean zer izan nahi dugun” adieraztea nahi du Etxarri 2012+1 ekimenak.

» Lakuntza

Lakuntzarena, Ikurrina

Lakuntzako Udalak Espainiako bandera udaletxean jartzeko agindua jaso zuen. Ikurrina kentzeko eskatzen dute, beste erkidego batekoa dela egotzita. Nafarroako banderari dagokionez, goiko aldean koroa duen bat jartzeko eskatu diote ere udalari. Horren aurrean, 1979tik gaur egun arte izandako hogeita hamar zinegotzi bildu ziren “gure sinboloen defentsa egiteko”.

Udal batzuk auzibidean ari dira, beste batzuk bandera jartzera behartu dituzte jada. Legeak dioten arabera hiru bandera jarri



Udal ordezkarien agerraldia. ERKUDEN RUIZ BARROSO

behar dira: Nafarroakoa, Espainiakoa eta udalerrikoa. Lakuntzak Espainiako bandera jartzeko eta ikurrina kentzeko aginduari he-

gitea jarriko dio “kontzientzia eragozpena” argudiatuz. “Gure herriaren gehiengoaren borondatearen kontrako inposizio bat da.

Urteetan egindako borroka eta mobilizazioen ondorioz lortu dugu. Nazioa garelau haizeetara aldarrikatzen jarraituko dugu”. Horretarako, Lakuntzako udaletxean “Hau bai, gurea” leloa irakurri daitekeen olana jarri zuten larunbatean.

Lakuntzan 1982ko festetan jarri zuten lehenengoz baina Guardia Zibilak herrian zehar jarritako bandera guztiak kendu zituzten eta udaletxera igo ziren hau ere eramateko. Orduetik, festetan bakarrik jartzen dute Lakuntzako udaletxean ikurrina. Sinboloen kontrako “erasoa” duela 500 urte hasitako konkistaren ondorioa da. www.guaixe.net

» Iturmendi

Ximona gaztetxea mustuko dute gaur



2011ko ilbeltzaren 7an okupatu zuten etxea, gaur gaztetxe bihurtuta.

Iturmendiko Gazte Asanbladak (IGA) duela bi urte okupatutako eraikina, gaur gaztetxe bihurtuta zabalduko ditu ateak. Ospakizuna Sakanako gainontzeko gazte asanbladetak kideekin ospatu nahi dute Iturmendin, hala haien laguntza eskertu nahi baitute. Baina esker ona lagundu dieten iturmendiarrak guztiei zabaldu diete. Mustutzeak San Migel festekin bat egiten

du eta ez da jai girorik faltako. Hori bai, asteartean despeditu zuten Javiero guztien gogoan izanen da.

Momentuz solairu bakarra du gaztetxeak. Komuna, biltegia, barra eta beheko sua jarri dituzte, zorua eta paretak txukuntzearekin batera. IGAKo kideek uste zutena baino espazio gehiago dute. Gainera etorkizunean bigarren solairua egiteko asmoa dute. Behin

Egitaraua

» Maiatzak 10, ostirala

19:00etan Kalejira.

20:00etan Gaztetxearen historia laburraren proiektzioa eta auzatea.

21:30ean Gazte asanbladen arteko afaria.

Afaldu ondoren: Poteoa gaztetxean eta DJ Sergey elkartearen.

» Maiatzak 11, larunbata

17:00etan Herriko haurren pilota partidak.

18:30ean Herri kirolak.

lokala izanda, “tailerrak eta herriagatik ahal dena egiteko prest” daude IGAKo kideak.

Duela bi urte okupatu zuten eraikina. Udalak gaztetxea eta ondoko eraikina erosi zituen eta IGAREN egoera “dexente hobetu eta zalantza guztiak uxatu” ziren. www.guaixe.net

Festa eguna bihar



San Migel eguna ospatuko dute bihar iturmendiarrak. Egitaraua goiaingeruaren omeneko mezak zabalduko du, eguerdian. Hura despeditzean, 13:00etan, auzatea izanen da, baita txistularien saioa ere. 17:00etan herriko pilotari txikiak partidak jokatu dituzte frontoian. Kirolak segida izanen du, iturmendiarrak elkarrekin neurtuko baitira herri kirol probetan. 20:00etatik 22:00etara DJ Xaibor plazan musika jartzen hasiko da eta lehen doinuak batera auzatea prest izanen da. Dantzarako doinuak gauerditik 3:30era berriro jarriko ditu DJ Xaiborrek.

PIVE PLAN BIKAINA

Jarrai gaitzazu: [f](#) [t](#) [v](#)

PRECIOS SÚPER ESTRELLA

carstore.citroen.es -en

SERIE BEREZIA

CITROËN C4 HDi TONIC 13.300€*

CITROËN C-ELYSEE VTI EXCLUSIVE 10.500€*

KONSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO₂ IGORPENA (G/KM):
 CITROËN C4: 4,2-6,4 / 109-148
 CITROËN C-ELISÉE: 4,1-6,5 / 108-151

*Citroën C4 HDi 90 Tonic PSP aholkatua, (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne), bezero partikularrentzat zeintzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen kobrea emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala eta 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, Banque PSA Financearen bidez Citroën PREMIUM finantzatu luke eta Essentialdrive komertzial bermearen luzapena kontratatuko lukeena gutxienez 2+1 edo 40.000 km (lehenengo gertatuko dena) hilabeteko abono bidez; finantzaketaren gutxieneko iraunkortasunaren betebeharrarekin, 36 hilabeteko zerbitzuarekin, Citroën C-Elysee VTI 72 Exclusive (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne) bezero partikularrentzat zeintzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen Citroën bat emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala finantzatu dutenak, 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, AXA S.A. aseguru etxean kobretarako aseguruarekin reaseguratu kontratatuko dituztenak Banque PSA Financearen bidez, erregistro zenbakia web orrian ikusgai www.orias.fr. Hilabete akaberako eskaintza partehartzaileren salmenta tokietan. Modeloa ikusgarri: Citroën C4 Exclusive eta Citroën C-Elysee VTI 72 Exclusive. Eskaintza ez metagarria. Baldintzak www.citroen.es

CITROËN

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

SAN MIGUEL AUTO-TAILERRAK S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657

>> Altsasu

Lazaro Echeverriako kargugabetzea aztertzeke eskatu dute langileek

“Enpresa kudeatzeko bere gaitasun ezak lan gatazka alferrik luzatzen ari da”. Langileek 66 egun egin dituzte greban

Gutun bidez zuzendu zaizkio Lazaro Echeverriako langileak enpresako Administrazio Kontseiluari. Langileek negoziazio ezaren arduradun egin dute gerentea: “ez du errealitatea batera ezagutzen eta bere hierarkia postuaren gehiegizko erabilera egiten du”. Bi hilabete pasako grebaren arduradun egin dute



Akziodunei eskaerak jakinarazi diete.

gerentea, “langileon lan eskubide eta baldintzak txikitzeke asmo argia du”. Langileen iritziz gerentea “bere nagusikeriagatik, ez da gai langileekin lan harremanez gutxieneko neurritasun eta leialtasunez aritzeko”. Karguan segitzeak kezkatzen dituela aitortu dute langileek. Langileek diote, gerenteak greba kudeatzeko moduak lege-hausteak ekarri dituela eta zigorrak zigorez due-la iritzirik aldatu.

>> Altsasu

Hemen dira bi aste gazteak



Tailerrak izanen dira.

Asteburu honetan eta hurrengoan garatuko da Gzt2ast programa. Altsasuko Udalaren Gazteria Sailak 12 urte-tik gorako altsasuarrei zuzendutako egitaraua da. Intxostiapunta gazte gunetik pasatzen direnak makinabat jardura izanen ditu, guztiak dohainik, 18ko afaria izan ezin. Hartan izena emateko gazteria@altsasu.net helbidera jo behar da eta 3 euro ordaindu. Programan parte hartzeko deia egin dute Gazteria Sailetik.

Egitaraua

- >> **Maiatzak 10, ostirala**
17:30ean Programaren aurkezpena.
18:00etatik 21:00etara Zezen mekanikoa.
- >> **Maiatzak 11, larunbata**
18:00etatik 19:00etara Musika tailerra.
19:30ean Sabel-hiztuna.
- >> **Maiatzak 12, domeka**
17:00etan 4x4 saskibaloia. Edarien banaketa.

>> Altsasu



Karabanen asteburu pasa Altsasura.

Karabanendako habia

Aurretik Extremadura edo Burgosko herriak izan diren moduan, auto-karabanen topaketa hartu zuen asteburuan Altsasuk. Hego Euskal Herriko, Errioxako eta Kataluniako 35 auto-karabana bildu ziren. Gehienak Sorbeltz auto-karabana erabiltzaileen euskal elkarteak eta Tximeleta elkarte nafarrekoak ziren. 6 edo 8 auto-karabana hartzeko gunea prestatzeko eskatu diote udalari. +www.guaixe.net

SAKANA



Adin guztietakoak elkartu ziren.

Eskola publikoak, haizeberrituz

Ibarreko eskola publikoek Arbizun euren ikasturteko jardunaren ispilubihurtu zuten igandegoizean. Pilota partidak, tailer ugari, jatekoak, musika eta pailazoekin gozatzeko aukera izan zuten bildu ziren sakan-darrak. Gainera, igandeko ospakizuna baliatu zuten deia luzatzeko: Sortzen-lkasbatuazek hilaren 18an Burlatan eta 19an Iruñeko Takone-ran antolatu duen jaira joateko. Haizeberritu, auzo eta lan izanen du leloa ospakizunak.

>> Olatzagutia



Gazteek urteurrena ospatuko dute.

Maisuenea, adinez nagusi

Olatzagutiko Gazte Asanbladak (OGA) Maisuenea gaztetxearen 18. urteurrena ospatuko du asteburuan. 1995az geroztik gazte egoitza denaren ospakizunak etxajuaren lehertzearekin batera hasiko dira, 19:00etan. Iturmendiko Ximona gaztetxea gaur mustuko denez, OGAKo kideak hara joanen dira, afaltzera. Bihar ospakizunak Olatzagutian segituko dute. Hamaitetako izanen da gaztetxean, baita herri bazkaria ere. Ondorengorako iragarri dituzte herri-olinpiadaketa herrian barnako poteoa. Shok Waves eta Segismundo Toxicomano taldeen kontzertuekin despedituko dira asteburu ospakizunak. Ostegun eta ostiralerako dokumental banaren proiektioa iragarri du OGAK, 20:00etan.

MOTZEAN



Hezkuntza erreformaren kontra

Espainiako Gobernuak sustatu duen LOMCE legearen kontra protesta egin zen atzo. Nafarroako hezkuntza publikoko komunitateak, gainera, hezkuntzan inbertsioa handitzeko eskaera egin zuten. STEE, LAB, CCOO, CSIF, UGT eta ELA sindikatuek deitu zituzten mobilizazioak. Ikastetxe guztietan bi orduko lanuztea egin zuten, baita kontzentrazioak ere. Horretaz gain, Iruñean eta Tuteran manifestazioak egin ziren. Sakanari dagokionez, bi orduko lanuzteak arratsaldean egin ziren ikastetxeetan. Horrekin batera kontzentrazioak ere izan ziren. Arbizu eta Urdiain bitarteko eskoletako ordezkariak 15:30ean Etxarriko errotondan kontzentratu ziren. Altsasun ere kontzentrazioa izan zen. Irurtzundik Iruñeko manifestazioa joateko deia egin zen.

Inasarako inbertsiogilea dago, baina salgai dago

Duela 3 aste inbertsio talde “serio” bat Inasa erosteko eta hura berriro martxan jartzeko interesa azaldu zuten. Baina lantegia eskuratzeko tra-

ba handiena egungo jabeada, Bavaria Industrie Kapital (Baikap) da. 2012ko azaroaren 5ean borondatezko hartzekodunen lehiaketa aurkeztu zuen. Orduan adierazi zuen 16 langilek lan komertziala eginen zutela, beste lantegietan ekoiztutakoa Irurtzundik saltzeko. Baikapek duen presaren kontrola eta bere pautu guztiak konkurtso-administratzaileak ikuskatzen ditu.

Bitartean, Baikapek Internet bidezko enkante batean Inasako makinariaren 580 bi lotetan saltzeko deialdia egin zuen. Ingalaterrako Bridgorth Aluminium Limited 3,1 milioi euroko balioa duen lotea eskuratu du. Irango Razan Saafek, berriz, 1,3 milioi euroko balioa duen lotea. Aste honetan bertan Baikapek gelditzen den makinaria salgai jarri du 1,2 milioi eurotan.

Guaixek jakin duenez, salmenta operazioak eteteke ahaleginak daude, denbora irabazi eta inbertsiogileak proposamena ondu dezan. Hura hartzekodunen premiak asezteko modukoa izan beharko luke. Baina Baikapen aste honetako erabakiak gauzak okertzen dituela aitortu digute.

Erregulazioa porlandegirako

Herenegun Madrilen izan ziren Cementos Portland Valderrivas (CPV) taldeko porlandegietako sindikatuetako ordezkariak. CPVko buruek azaldu zieten zementu salmenta jaitsi egin dela eta 2012an 27,7 milioi euroko galerak izan zituen taldeak. Aurtengo eta heldu den urterako aurreikuspenak okerragoak direla eta galerei aurre egiteko neurri sorta

hartuko dutela iragarri zuten CPVko buruak.

Ez dute porlandegirik itxiko baina estrategikoak ez diren aktiboak salduko dituzte. Horrekin batera, korporazio egituraren kaleratzeak izanen direla aurreratu zuten. Porlandegietan, berriz, kontratuak aldi baterako eteteke enplegu erregulazio espedienteak aurkeztuko du. Horrekin batera, langile guztiei soldata murriztea eta lan baldintzen maldaketa egiteko asmoa azaldu zuen. ELAtik azaldu digute aurretik hartutako neurriekin lan baldintzak aztertzeke prest azaldu da ELA, baina ez soldatak. UGTren eta CCOOren iritzirik ezin izan dugu jaso.

Sunsundeguiako kaleratzeen “iruzurra” salatuz

Kaleratze irizpideak eta diskriminazio sindikala juridikoki salatzeke bidea aztertzen ari da LAB. Horretaz aparte, haien ordezkariak enpresan jasaten ari diren egoera ere salatu zuen. Aldi berean, espedienteak iruzurra izan daitekeelako salaketak aurkeztzen ari da sindikatu abertzalea, dagoena baino lan karga handiagoa egon daitekeela uste duelako. Halaxe jakinarazi zuen ostiralean LABeko Sakanako buru Gaizka Uhartek. Aurreko ostegun eta ostiralean ordu estrak sartu zirela ere jakinarazi zuen. Karrozeria enpresan izandako kaleratzeak salatzeke 200 pertsona bildu ziren. “Sunsundeguiarekin zer egin nahi genukeen erabakitzeke aukera galdu dugu langileok”. +www.guaixe.net

Erabiltze instrukzioa

Nafarroako berezko txistorak izan bat du

FLORES S.L.

Txistor ekologikoa

Urtzubar industriakoa Tel.- Faxa: 948 460 499

Udaberriko G argazki lehiaketa

>> Saria: **SAVÁN** informatikak eskainitako **liburu digitala**

ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel eta jpg formatua izatea. **Argazkiak Sakanan hartutakoak izan beharko dira.** Argazkilarik bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri beharko dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak ekainaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Jesus Arraiza Ongay

II. urteurrena



Zure begien dizdira
eta ezpainetako irria
beti gurekin egongo da.

Zure bilobak



Antonio Goikoetxea Fernandez

Antonio Jimenez Mendiola

Maria del Mar Albarrazin
Razkin

Ismael Igoa Ezkutari

Maria Angeles Aiestaran
Goñi

Maria Angeles Sanz Aizpun
Fidel Salinas Ferrer

Parrandan ere gogoan zaituztegu.

1960ko kintoak



Jesus Arraiza Ongay

II. urteurrena



Ez zinen arbol handia
baina itzal izugarria utzi duzu.
Izan eta zinen bezalakoa
gogoratuko zaitugu.

Zure familia

Bere aldeko meza, maiatzaren 12an goizeko 11.00etan,
Lakuntzako San Salvador elizan izanen da.



Javier Gonzalez Vega

Elkartean, zurekin gogoratuko gara.
Parkean, zurekin gogoratuko gara.
Inoiz ez zaitugu ahaztuko.

Aritzaga elkartea

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en
doan.

Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/
hartu,
lan eskaintzak 10 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/Negozioak

LAN ESKAINTZA

Aisialdiko monitoreak behar ditugu.

Arbizuko Udala. Curriculumak aurkezteko epea
udaletxean ekainaren 4a arte edo
info@arbizu.info helbidera bidali.

Erosi/Saldu

EROSI

2. eskuko txirrendula estatikoa erosiko nuke.
Interesatuak hots egin dezatela 699- 78 07 72ra.

Ikastaroak

Birziklatze tailerra. Irakaskuntza artistikoa eta
sormen pentsamendua. Idoia Osés Perezek
zuzendutako tailerra. Maiatzaren 4, 11 eta 25 eta
ekainaren 1a, 10:00etatik-12:00etara (12-15 urte-
koentzat), 12:15etatik-14:15etara (16 urtetik gora-
koentzat). Doan. Tokia Lakuntzako Udala. Izen
ematea 948- 57 60 15.

AESeK ikastaro hauek antolatu ditu.

"2012ko lan erreformaren gaineko epaileen dok-
trina berria", zehazteke; "Proiektuak kudeatzeko
baliabideak", 30 ordu, maiatzaren 15etik ekaina-
ren 6ra arte; "Elkarrizketak ingeleraz", 35 ordu,
maiatzaren 29tik uztailaren 3ra; "Buruko mapak.
Informazioaren antolaketa optimizatzeke erre-
mintak", 15 ordu, ekainaren 6tik ekainaren 20ra;
"Nola landu aurkezpen eraginkorrak", 25 ordu,
ekainaren 7tik ekainaren 21era.

Javier Gonzalez Vega

Javi,
ze zaila den
lagun maite bati
agur esatea.
Hurren arte Viero!

Zure Iturmendiko lagunak



Javi

Agur manager,
ikusitako arte

kixketa



Javier Gonzalez Vega

Gure kafe orduan,
faltan somatuko zaitugu.
Zure barre handia
gure alaitasunaren argia.

Amatxoak eta txikiak



Javier Gonzalez Vega

Javi,
gure erreportari onenari,
gure txapelketa antolatzaileari,
gure lagunari.
Maite zaitugu.

Zure Iturmendiko lagunak

JAIOTZAK

• **Mai Lakuntza Ubeda**, maiatzaren
4an Etxarri Aranatzan.

Carrillo Mateos, maiatzaren 4an
Altsasun.

HERIOTZAK

• **Alberto Garcia Barragan eta Sandra**

• **Maria Nieves Seminario Garralda**,
apirilaren 27an Urritzolan.

• **Jesus Arana Paul**, maiatzaren 3an
Altsasun.

• **Juan Agirre Otxoa**, maiatzaren
4an Olaztin.

• **Francisco Javier Gonzalez Vega**,
maiatzaren 6an Iturmendin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan
jasotzen da

Kirola >>

Pilota

Zabaleta lanera

EZKURDIA GUTXIGATIK BAINA BURUZ BURUKOTIK KANPO DAGO, BEROIZEN KONTRA 22-18 GALDU ETA GERO

Buruz Burukoa. Final zortzirenak

Albisu - Beroiz (ostiralean, 19:30ean, Tolosan. ETB1)
Retegi Bi - Barriola (larunbatean, 17:00etan, Labriten)
Xala - Urrutikoetxea (larunbatean, 17:00etan, Labriten)
Zabaleta - Jaunarena (igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1)



Zabaletak Jaunarena izango du arerio. Goian, Binakakoan aritu zirenean. UTZITAKOIA

Binakako Txapelketa irabazi ondoren, Buruz Burukoa prestatzen buru-belarri dabil Etxarregoa. Izan ere asteburuan sartuko da lehian, final zortzirenetan, Asier Olaizola 3 tantotan uztetik moralaz beteta dagoen Jon Jaunarenaren kontra. Afizionatuen mailatik ongi ezagutzen dira elkar biak, eta partida estua aurreikusten da.

Ezkurdiak ezin izan zuten Beroizen kontra

Buruz Buruko Txapelketan ordezkari bakarrarekin geratu gara, final hamaseirenetan Joseba Ezkurdiak Mikel Beroizen kontra galdu eta gero. Nahiz eta apustuak Arbizuko aurrelariaren alde aterra, eta Ezkurdia faboritua izan,

Uharteko Iruñekoak lortu zuen garai-pena. "Galtzekorik ezer ez banu bezala hasi naiz, eta lasai jokatu zut" zioen Beroizek. Ongi jokatu zuten Uharteko atzelariak, baina Ezkurdiaren opariak hobeto baliatu zituelako irabazi zuen. Bere aldetik, Ezkurdiari hasberriaren huts egiteak nabaritu zitzaizkion.

Estua izan zen lehia. Ezkurdia markagailuan aurretik ibili zen hasieran, 2-7, baina Beroizek 13-11 aurreratzea lortu zuen. Ezkurdiak 13ra berdindu zuen, eta hortik aurrera, partidarengakoa arbizuarrrak egindako bi hutsetan egon zen. 13koa egin zuenean sakea berreskuratu zuen Ezkurdiak, baina ez zuen egoera baliatu, Beroizek sakeari egindako errestoa eran-

tzuterakoan akatsa egin baitzuen arbizuarrrak. Horren aurretik Beroizek lau tanto egin zituen. 18-14koan, baina, galdu egin zuen Beroizek eta egora ongi probestu zuen Ezkurdiak, sake-erremateari esker 18ra berdinduz. Baina horerorriren Ezkurdiaren bigarren akats nabarmena eta hor joan zitzaion partida, Beroiz bere gainetik pasa zelako, 22-18 gailenduz. Ezkurdiak ongi jokatu zuen baina ez zuen gozatu, bukaeran batez ere. Beroiz esperientzia gehiago duela nabaritu zitzaion, eta tantoa bukatzen trebea dela ere erakutsi zuen.

Bukaeran bere buruarekin haserre azaldu zen Ezkurdia, egindako akatsengatik. Lasai, esperientzia horrela lortzen da eta.

Aizkora

Nazabal Urrezko final laurdenetan

Banakako Urrezko Aizkora azken txanpara heldu da. Hasierako ligaxka jokatu da, 8 aizkolari sailkatu dira final laurdenetarako. Final laurdenak bihar, larunbatean jokatuko dira. Alde batetik, Dimako frontoian, 19:00etatik aurrera, Floren Nazabal, Aitzol Atutxa, Joseba Otaegi eta Ander Erasun ariko

dira. 5 lan izango dituzte aurrez aurre, eta denera 8 enbor erdibitu beharko dituzte. Bi onenak sailkatuko dira finalerdietarako. Beste final laurdena Urduñan jokatuko da, eguerdian. Juanjo Lopez, Mugerza II, Rekondo eta Kañameres III lehiatuko dira.

Floren Nazabalek maila bikai-



na erakutsi du orain arte eta finalerdietara sailkatzeko faborito nagusia da. Ea aurreikuspenak betetzen dituen.

>>



IRURTZUNGO PILOTA TXAPELKETA

Final laurdenen txanda

Final laurdenetako partiduak

Gaur, maiatzaren 10ean, ostiralean, Etxarrenean, 17:30ean:

Gazteak:

Bakaikoa - Mariezkurrena (Oberena) / Oroz - Ruiz (Zugarralde)
Espinal - Sarasa (Huarte) / Mitxelena - Mendi (Gure txokoa)
Garaio - Mateo (San Migel) / Rodrigo - Garcia (Titin)

Kadeteak

Zalduendo - Anduaga (San Migel) / Azkonabeitia - Garmendia (Lapke)

Okiñena - Irurita (Oberena) / Oiarbide - Murua (Andoain)

Bihar, maiatzaren 11n, larunbatean, 10:00etan, Irurtzunen:

Gazteak:

Sagastibeltza - Andueza (Oberena) / Apaolaza - Imaz (Urretxu)

Kadeteak:

Marcos - Aizpuru (Titin) / Egiguren - Erauskin (Zazpi Iturri)

Seniorrak:

Ezkurdia - Bergera (Irurtzun) / Iriarte - Arano (Buruzgain)

Asteazkenean, maiatzaren 15ean, 19:15ean, Irurtzunen:

Seniorrak:

Loban - Tabar (Huarte) / Lansalot - Okiñena (Oberena)
Ugalde - Ugalde (Oirpe) / Mugu-ruza - Perez (Txukun Lakua)

Futbola

3. MAILA

36. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 0 - TXANTREA 4

Bi taldeak lasai atera ziren zelaira, 3. mailako kategoriari eutsi diotelako eta jokoa gehiegi ez zutelako. Baina 5 minututan 3 gol sartu zituen Txantreak. 2. zatian saiatu zen Lagun, baina ezin, eta 0-4 galdu zuten etxean.

Sailkapena >>

1. Mutilbera 74 p
13. Lagun Artea 45 p

Azken jardunaldia

EGUESIBAR - LAGUN ARTEA

(Larunbatean, 17:00etan, Sarrigurenen)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

30. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 0 - BETI KOZKOR 1

ALTSASU 1 - AMIGÓ 4

ERREGIONAL MAILAKO LIGA DESPEDITU DA:

ETXARRI 8. ETA ALTSASU 9. Talde sakandarrek ezin izan zuten liga bukaera garaipenarekin ospatu. Etxarrik gehiago dominatu zuen baina ez zuen kontrako atean asmatu. Gainera, jokaldi nahasi batean euren ate propioan sartu zuten gola. Bestalde, Amigók lehen kornerean zulatu zuen Altsasuko atea. Bikain mugitu zuten baloia eta atsedenaldirako 0-4 aurreratu ziren. Partida bukaeran gol bakarra sartzea lortu zuen Altsasuko Javierrek.

Sailkapena >>

1. San Juan 73 p
8. Etxarri Aranatz 34 p
9. Altsasu 30 p

UDABERRIKO KOPA. Aurki Udaberriko Kopako partidak jokatzen hasiko dira.

>>

Kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Txapelketari agur

Igande honetan bukatuko da kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Txapelketa. Txapelketa urritik maiatzera jokatu da, eta helburua kirola eta parte-hartzea bultzatzea eta herrien arteko harremanak sustatzea da. Horregatik ez da sailkapena egiten.

Sakanako futbol 8 txapelketako azken jardunaldia

Igandean, maiatzaren 12an, Altsasuko Dantzalekun:

Gazteak:

11:30ean: Tipi Tapa - Txartel
12:30ean: Dantzaleku - Alzate
11:30ean: Etxarri - Urdiain
12:30ean: Sayas - Lagun Artea

Sorgiñak
fabrika

LAKUNTZA
948 576 357

GANUZA SUKALDEAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Elektragailuak

GANUZA GARANTIAREKIN

Tel.: 948 460 203
faxes: 948 460 673
Etxarriko industrialdea
ETXARRI-ARANATZ

PPSOE,

ETB digitala

Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

olaztiko udala

Behin behineko onespina lortu ondoren
Udal Planari egindako funtsezko aldaketak.
Espedientea jendaurrean jartzeko epea ireki.

2013ko apirilaren 25eko batzarrean, Olaztiko Udalaren Osoko Bilkurak adostu zuen behin behineko onespina lortu ondoren, Udal Planari egindako funtsezko aldaketak eta espedientea jendaurrean jartzeko epea ireki da.

70, 78 eta 79 artikulua xedatutakoari jarraituz — Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 35/2002 Legearen, abenduaren 20koaren, espedientea jendaurrean jarriko da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabeteko epean (85. Aldizkaria- 2013ko Maiatzaren 7a), interesa dutenek hura aztertzeko eta nahi dituzten alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Olaztin, 2013ko maiatzaren 8an.
Gurutze Rodríguez Armendariz alkatea.

Txirrindularitza

Rural Kutxa talde profesionala Vueltan ariko da

Burunda Txirrindularitza Klubetik sortu zen Rural Kutxa talde profesionalak Espainiako Vueltan aritzeko gonbidapena jaso du.

Amateurrek Bidasoako Itzulia helburu

Asteazkenean hasi zen 23 urtez azpiko afizionatuen mailako Bidasoako Itzuli ezaguna. Tropel amateurreko talde eta txirrindulari onenak ari dira lehian, Rural Kutxa talde sakandarra tartean. Talde sendoa eramandu: Berriki Espainiako Kopa irabazi duen Fernando Grijalba arikoda, Ibai Salas, Asier Unanue, Antonio Molina, Carlos Jimenez, Jaime Roson eta Jesus Rubioren batez. Asteazkeneko etaparen taldetxo bat iritsi zen aurretik helmugara, eta esprint estuan Naturgaseko Chetout izan zen azkarrena. Rural Kutxako Jimenez 10.a sartu zen. Atzoko emaitzen faltan, aipatzekoa da gaur Hondarribian (128 km, 14:30etan) eta bihar Irunen (77,8, 15:00etan) jokatu diren etaparen direla erabakiorrenak, mendiz josiak baitaude, Jaizkibel eta Erlaitz tartean.

MOLINA 2.A URRAKIN

Igandean Azpeitiako Urrakiko Igoera jokatu zen. Helmugara bi txirrindulari heldu ziren batera eta esprint estuan Mutua Levante taldeko Pedro Gregori gailendu zen, Rural Kutxa talde sakandarreko Antonio Molinaren aurretik.

Patxi Cia azkarrena Tafallan

Atzo Rural Kutxa BTT Koparako baliagarria zen proba jokatu zen Tafallan. Patxi Cia ez zuen areririk izan eta merezitako garailea izan zen (1:36:59), Kopako lidergoa sendotuz. Diego Latasari 1:31-ko denbora atera zion. Txirrindulari sakandarrei dagokienez, Mikel Otxoa 32.a izan zen, 23 urtez azpikoan 5.a, eta Mikel Irigoien 43.a, 23 urtez azpikoan 8.a.

Txirrindularitza

Urtasunek Giroari agur

Ezin izan du gehiago. Pablo Urtasunek agur esan behar izan dio Giroari. Lehendabiziko etaparen sekulako erorikoa izan zuen urdiandarrak, eta ordutik guztiz minduta zegoen, ezinean. Aldaka, ukondoa eta belauna minduta zituen kolpearen ondorioz, eta 2. eta 3. etaparen bukatzeko izugarri sufritu zuen. Asteazkeneko etaparen ezin izan zuen gehiago eta bizikletatik jaistea erabaki zuen, jarraitzeak ez zuelako inolako zentzurik, urdiandarrak ezin zuelako taldearen aldeko lanik egin, eta ezin zelako behar bezala osatu.

Pena handiarekin

“Munduko ilusio guztiarekin presatatu dudana lasterketa utzi behar izateak pena handia ematen dit. Lan handia egin dut sasoiaren iristeko, eta esfortzu eta sakrifizio horiek ez dute isla izango. Etsitu-

Asteburuko probak

Kadeteek lasterketa dute larunbatean Arronitzan, Borja Osés Memoriala, 12:00etan (56,5 km). Bidasoako Itzulia murgilduta daude afizionatuak. Hura bukatuta, 23 urtez azpiko txirrindulariek Lehendakari Sari-rako baliagarria den lasterketa dute jokoan igandean Natxituan, 10:00etan (119 km).

Mendi txirrindularitza

Loiolatik Arantzazura pedalkadaz joateko gonbita

Maiatzaren 26an, Mankomunitateak antolatuta. Izena ematea zabalik

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak mendi bizikleta irteera antolatu du maiatzaren 26rako, Burunda Txirrindularitza Klubeko BTT sailarekin elkarlanean. “Irteera hauetara sakandar guztiak gonbidatzen ditugu” adierazi du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak.

Bi ibilbide

Maiatzaren 26an, igandean, Loiolatik aterata Arantzazura joateko mendi txirrindularitza ibilbidea



Urtasun Martinezekin eta Verdugorekin, Giroaren hasieran. EUSKALTEL

ta nago, animurik gabe. Irteera hartu dut ez nuelako proba utzi nahi, baina une bat iritsi da non ia ezin nuen pedalkadatik jo. Nigatik eta taldearengatik ematen dit pena, Italiara helburu oso politekin etorri garela eta nik ezingo dudalako lagundu. Baina, beno, ea orain lehenbailehen osatzen naizen, oraindik denboraldi luzea geratzen da eta” adierazi zuen Urtasunek erretiratu eta gero.

Izan ere Giroak sorpresa bat bestearen atzetik ekarri du egunero, nahiz eta oraindik lehendabiziko jardunaldietan egon. Erorikoak, euriak sortutako arazoak, ustekabeko erasoak... egunero dago zer-

bait. Atzoko etapako emaitzen faltan –printzipioz esprinterranda-ko proposa zen– Katushako Luca Paolini zen liderra, Skyko Urani 17 segundo, Intxaustiri 26 segundo, Nibaliri 31 segundo eta Hespaldali eta Wiggins 34 segundo aterata. Jorge Azanza 30.a zen, 1:52ra; Egoi Martinez 64.a, 9:08ra; eta Gorka Verdugo 73.a, 13:19ra. Urtasuni gertatutakoa alde batera utzita, sentsazio onekin dabilta sakandarrak, nahiz eta taldekako erlojupekoan ere zorte txarra izan. Etorriko dira momentu hobeak talde laranjarendako, seguru. Giroak oraindik asko du esateko, eta zaleok asko dugu gozatzeko.

III. Sakana Burunda lasterketarako izena ematea zabalik



Burunda Txirrindularitza Taldetik azaldu digutenez, aurten aurreratu egin dute III. Sakana Burunda Zikloturista Ibilbidea. Maiatzaren 18an jokatu da, larunbatean. Ohikoa denez, eta Altsasu abiapuntu eta helmuga izanda, Sakanatik barna ibilbide ez lehiakorra egitea da helburua, baina San Migel iguera kronometratuko da. www.clubciclistaburunda.com Izena ematea zabalik dago, maiatzaren 16ra arte, www.clubciclistaburunda.com web gunean. Federatuek 30 euro ordaindu behar dituzte, eta federatu gabekoei 35 euro. Parte hartzaile guztiak produktu lotea jasoko dute eta hainbat sari zozketatuko dira.

Eskolako sariak

Larunbatean eskolen mailako I. Ogiberri Trofeoa jokatu zen Berrioplanon. Kimuen lasterketan Aralar klubeko Igor Arrietan nagusitu zen. Ginkanan, promesetan, Burunda taldeko Mikel Regil izan zen lehena, hasi berrietan haren taldekide Ion Chamorro eta kimuetan Aralar klubeko Aitor Alberdi.

antolatu dute, 42 km-koa, Urolako Bide Berdetik barna. Ibilbidearen zailtasuna ertaina-altua da. Horregatik beste ibilbide bat prestatu dute, errazagoa, Loiolatik atera eta Mirandaolara joango dena (27 km). Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Altsasuko autobus geltokitik. Aipatzekoa da bazkaltzera etxera itzuliko dela.

Maiatzaren 21era arte eman daiteke izena

Aipatu irteeran izena ematea zabalik dago, maiatzaren 21era arte.



Horretarako ondoko telefonoetara deitu behar da: 636 528 112 edo 948 464 866 (kirol zerbitzua), edo

kirolak@sakana-mank.com posta elektronikora mezua bidali. Prezioa: 10 euro.

TXIKITXO
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

BEHAR DITUZUN HERRAMINTA GUZTIAK!

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneretik ostiralera
Eguneko menua
8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 · Altsasu

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Herri kirolak

200 ikasle herri kirolean murgiltzen



Neska-mutikoak gustura lehiatu ziren euren artean, gainontzeko ikaskideen animuak jasoz.

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, asteazkenean jokatu zen Ikastetxeen Arteko 9. Herri Kirol Topaketa. Olaztikokiroldegian Sakanako ikastetxe guztietatik hurbildutako 197 ikasle bildu

ziren, guztiak 6. mailakoak. Haiei laguntzen eta ekitaldia antolatzen 18 irakasle zeuden. Sakanako ikastetxe desberdinetako neska-mutilak nahastuz taldeak osatu zituzten, eta guztiek herri kirol proba kon-

binatueta hartu zuten parte, txingak, zakulasterketa, koxkolak, giza-plaza eta sokatiran arituz. Bikain aritu ziren. Probak baino lehen aizkora erakustaldia egin zuten Kañamaresek eta Arkaitz Jauregik.

Areto futbola

SAKANAKO ARETO TXAPELKETA-IKER KIROLAK SARIA

Piperoxki txapeldun!

Larunbatean Sakanako Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolak Sariako finalak jokatu ziren Altsasuko Zelandi Kiroldegian. Lehenik eta behin 3. eta 4. postuak erabakitzeke partida jokatu zen. Emozioa pil pilean egon zen, Arezpek eta Ass Apple taldeek bina berdindu zutelako. Penaltietan Arezpekoak finalgo ibili ziren eta beraiek lortu zuten 3. postuan sailkatzea.

Segidan final handiari ekin zioten Etxarri Aranazko Auzomotojorik taldeak eta Altsasuko Piperoxkik. Partida oso lehiatua izan zen, baina Piperoxki nagusitu zen, Auzomotojorik 8-3 menpean hartuz eta txapelketa irabaziz. Txapeldunek Iker Kirolak babesleak eskainitako trofeoa, baloia eta galtzerdiak jaso zituzten opari, txapeldunordeek garaikurra, baloia eta galtzerdiak, eta hirugarrenak eta laugarrenak garaikurrak.



Sari emate ekitaldiaren ondoren talde argazkiak atera zituzten finalistek. Goian Altsasuko Piperoxki taldeko kideak. ERKUDEN RUIZ BARROSO.



Etxarri Aranazko Auzomotojorik taldekoak txapeldunordeak direla ospatzen, pankarta eta guzti. ERKUDEN RUIZ BARROSO.

Frontenisa

SAKANAKO EMAKUMEEN VI. FRONTENIS TXAPELKETA

4. jardunaldia jokoan

Gaur, ostiralean txapelketako 4. jardunaldia jokatu da Olaztin eta Etxarri Aranatzen

Sakanako Emakumeen VI. Frontenis Txapelketan 18 bikote ari dira lehiatzen, 9 biko lehen mailan eta beste 9 bigarren mailan. Gaur, ostiralekin, hasierako ligaxkako 4. jardunaldia jokatu dute Olaztin eta Etxarri Aranatzen.

Emakumeen Frontenis Txapelketa.

4. jardunaldia

Olaztin, ostiralean

2. maila

19:00etan: Marta-Maite / Maria-Maider

19:30ean: Izaskun-Mirentxu / Amaiur-Irati

Atsedean: Ane-Uxue

1. maila

20:00etan: Kristina-Maialen / Mireia-Elena

Atsedean: Edurne-Vanesa

Etxarri Aranatzen, ostiralean

2. maila

21:00etan: Jone-Uxune / Andrea-Izar

21:30ean: Maider-Leonor / Uxue-Irati

1. maila

20:00etan: Ainhoa-Txaro / Ruth-Yolanda

20:30ean: Yanira-Maite / Bero-nika-Maite

Areto futbola

IZURDIAGAKO FUTBOL 8 TXAPELKETA

2. jardunaldia jokoan

Lehen jardunaldiko emaitzak:

Rajatabla - Itxasperri-Lacturale
Isotopos - Guanlarraz
Karrotillo - Egiarreta

Asteburuan hasi zen Izurdiagako Futbol 8 Txapelketa. 8 taldek eman dute izena: Rajatabla, Itxasperri-Lacturale, Isotopos, Guanlarraz, Karrotillo, Egiarreta, Gunea-Taberna eta La Txu. Aipatu taldeak bi multzotan banatuta ariko dira lehiatzen, eta multzo bakoitzeko bi onenak sailkatuko dira finalerdietara. Asteburu honetan 2. jardunaldia dago jokoan. Partidak Izurdiagako futbol zelaian jokatu dira.

2. jardunaldia

Ostiralean

19:30ean: Karrotillo - Egiarreta
Larunbatean

16:00etan: Gunea Taberna - La Txu

18:00etan: Itxasperri Lacturale - Guanlarraz

Igdanean:

12:00etan: Isotopos - Rajatabla
TB

Sakana, Andra Mari eta Beriain, Nafarroako Sokatira Txapelketan

Larunbatean Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu da Baztango Amaiurren, arratsaldean, 18:00etan.

Emakumezkoetan (260 kg) Sakana taldea ariko da lehiatzen. Etxarri jokatuako lehen jardunaldian bigarren talde onena izan zen Sakana, Berriozarren atzetik. Basaburua-Imotz eta Txantrea sailkatu ziren ondoren. Kadeteetan (290 kg) Sakanako Andra Mari taldea izan zen onena. Berriozar A, Berriozar B, Ultzama eta Andra Mari ikastolatik sortutako Beriainek osatu zuten sailkapena. Ea bigarren jardunaldiak zer ekartzen duen.

Play offetan, Trimane Inter Movistar arerio

Ohorezko mailako ligako azken partidari, Triman Navarra Xotak 8-5 irabazi zion Marfil Santa Colomari. Imanol Arregiren mutilek sekulako ikuskizuna eskaini zieten Anaitasuna pabilioian ligako azken partidaz gozatzera hurbilduz ziren zaleei. Javi Ezeberri kapitainak 3 gol sartu zituen, hat-tricka eginez, eta horretaz gain Alexek, Jesulitok (2) eta Rafa Usinek (2) egin zituzten Irurtzungo taldeko gainontzeko golak.

Inter Movistar, arerio latza

Liga erregularra bukatuta, orain liga titulua jokatzeko play offak hasiko dira. Ligan lehen 8 postuetan sailkatu diren taldeak ariko dira: Bartzelona (65 puntu), El Pozo Murcia (59p.), Inter Movistar (57p.), Caja Segovia (53 p.), Umacon Zaragoza (47p.), Triman Navarra (45p.), Santiago Futsal (43 p.) eta Rios Renovables (36 p.). Hortaz, Nafarroako bi taldeak sailkatu dira.

Play offetako final laurdenetako joaneko partidak maiatzaren 17an jokatu dira, itzulerako partidak 25ean, eta berdinketa hausteko 3. partidak jokatu behar badira, maiatzaren 26an.

Triman Navarra Xotaren arerioa, final laurdenetan, Inter Movistar taldea izango da, arerio latza. Bartzelonak Rios Renovables izango du aurkari, El Pozo Murciak Santiago Futsal eta Caja Segoviak Umacon Zaragoza. Imanol Arregik bi aste ditu lehia prestatzeko eta ea irurtzundarrak ahalik eta freskoen eta hoberen iristen diren partidara.

Mendi lasterketak

Iñaki Martiarena hirugarrena Elomendiko Xtremen

Sakandarrak Elomendiko Xtremen

1.	Fernando Etxegarai	1:45:51
3.	Iñaki Martiarena	1:46:37
6.	Angel Arrieta	1:47:27
8.	Jose Luis Beraza	1:50:41
15.	Jose Javier Maiza	1:55:22
19.	Gorka Santesteban	1:57:32
22.	Juanjo Goikoetxea	1:58:12
25.	Evaristo Noveleta	1:58:44
26.	Patxi Albeniz	1:59:07
69.	Patxi Rubio	2:10:36
144.	Arantzazu Larrañaga	2:26:56
174.	Pablo Gonzalez	2:23:04
220.	Jose txo Albizu	2:44:44

Igandean Elomendiko Xtrem maratoi erdia jokatu zen (21 km, 2000 m desnibela). 269 korrikalari iritsi ziren helmugara, Fernando Etxegarai buruan zela (1:45:51). Etxegarai 12 segundo atera zizkion Victor Amatriaini. Sakanako korrikalariak lan bikaina egin zuten: Uharteko Arakilgo Iñaki Martiarena hirugarrena izan zen proban (1:46:37), Etxegaraitik 46 segundora, eta bere herrikide Angel Arrieta 6.a (1:47:27). Gainontzekoek ere lan polita egin zuten.

Duatloia

Maiza 8. San Juan Duatloian

Igandean San Juan Duatloia jokatu zen Iruñean (4,8 km korrikan, 10 km bizikletan eta 2,2 km korrikan). Guzman Zapateria izan zen lehena, Iñaki Martinezi bi minutu pasa aterata (50:42). Sakana Triatloi Taldeko Iñigo Maizak lan polita egin zuen. 39.a sailkatu zen (1:00:10) eta kade te mailan 5.a izan zen.

Atletismoa



Aitzkozar lasterketarako izena ematea zabalik

Maiatzaren 25ean jokatu da, Iturmendin

Iturmendiko Aitzkozar Elkarteak eta Bakaikuko Bakarrekoezkoa Elkarrekin antolatuta, maiatzaren 25ean jokatu da 9. Aitzkozar herri Krosa. Aurten irteera eta helmuga Iturmendin izango ditu probak, baina Bakaikutik ere pasako da. Kategoriatxikikoen probak 17:00etan hasiko dira, Iturmendin, eta proba nagusia (8,1 km), 18:30ean.

IZENA EMATEKO

Izena ematea zabalik dago. Horretarako www.dantzaleku-sakana.com web orrira joan behar da edo ondoko telefonoetara deitu behar da: 948 562 034 / 606 398 802. Probaren egunean bertan ere izena eman ahal da, Aitzkozar elkartearen lasterketa hasibaino ordu bat lehenago. Helduek 5 euro ordaindu beharko dituzte.

Irristaketa



Topaketa Urdiainen

Larunbatean Sakanako irristaketa eskolen topaketa ospatu zen Urdiainen. Altsasuko eskola, Urdiaingo Aitziber eta Olazitiko Sutegi klubetako irristalariak ongi pasa zuten. Juli Acebes entrenatzailearen aginduetara, jokoak, taldeen arteko lasterketak eta proba konbinatuak, erakustaldiak eta beste egin zituzten, eta bukaran merienda izan zen. Bestalde, maiatzaren lehenean federazioen arteko lasterketen Txantrea Trofeoa jokatu zen Iruñean. Altsasuko eskolako Unai Villalobos 3.a izan zen haurren mailan eta Ander Villalobos 2.a.

Saskibaloia

Mariñelarena Jerezen

Asteburuan Espainiako Saria hartu zuen Jerezek, Munduko Abiadura Txapelketarako baliagarria den proba. Milaka motorzale bildu ziren Jerezeko zirkuituan eta lasterketak ere ikusgarriak izan ziren. Goi mailako ikuskizun horretan pilotu sakan dar bat aritu zen, Alex Mariñelarena irurtzundarra (Targobank Motorsport, Suter). Mariñelarenak gonbidatu moduan hartu zuen parte Moto G2 kategorian. Lasterketako txapelduna Esteve Rabat katalana izan zen (1'43.141). Alex Mariñelarena 32.a sailkatu zen (1'46.04). Irurtzundarra pozik zegoen munduko proban parte hartu izanagatik, eta argi zuen



helburua esperientzia hartzea zela. Alde horretatik, oso positiboa izan da Jerezen egindako lana.

Mariñelarena Espainiako Abiadura Txapelketan zentratuta dago. Lehendabiziko lasterketa, Montmeloko, irabazi egin zuen, eta hurrengo proba maiatzaren 26an jokatu du, Aragoiko MotorLand-en.

Saskibaloia

Denboraldia bukatzeaz

Despeditzen ari da Nafarroako saskibaloia denboraldia. Nafarroako Kirol Jolasetan parte hartzen ari diren talde sakandarrek dagoeneko despeditu dute denboraldia. Soilik haur mailako gizonezkoen Altsasu CBASK-eko taldeak jarraitzen du lehian.

Errepaso bat eginez, emakumezkoen senior mailako 2. maila autonomikoan lehiatu den Altsasu CBASK taldeak kanpaina polita egin du. Ligan 8.ak bukatu dute Sakanako neskek. Gizonezkoen junior mailako 1. maila autonomikoan lehiatu den Altsasu CBASK taldeak ere lan ona egin du. Mutil juniorrek 10.ak sailkatu dira.

Emakumezkoen kadete mailako 2. mailan lehiatu diren Sakanako 2 taldeak asteburuan bukatu

zuten denboraldia. Cementos P.V. Altsasuk, lan ederra eginda, 8.a sailkatu da Emakumezkoen kadete mailako 2. Mailako 2. multzoan. Irurtzun Lacturale taldea apalago aritu da eta 30.a sailkatu da.

Haur mailako emakumezkoen 2. Mailan Altsasu CBASK Bodegon Sarriak 13. postuan despeditu du liga, denboraldiaren balantze polita eginez.

Haurrak lehian

Gizonezkoen haur mailako 2. mailan, klasifikazio fasean jarraitzen du Cementos P.V. Altsasu taldeak. Asteburuan Tuterari 12-68 irabazi zieten altsasuarrek eta sailkapenean lehenak dira. Larunbatean, 10:50ean, Altsasun, Tafalla taldea hartuko dute.

Mendia

Orientazio proba Arbizuko basoan

Sakanako eta Aguraingo ikastetxe-ek antolatuta eta Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuaren laguntzarekin, orientazio proba antolatu da maiatzaren 15ean, asteazkenean, goizeko 10:00etatik hasita. Arbizuko basoan burutuko da aipatu proba, Zubaat eta Sandindegiko artean. Altsasuko Institutuko 52 ikaslek, Aguraingo 40k eta Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolako 30ek hartuko dute parte.

HELBURUAK

Orientazio probaren helburuak hainbat dira. Batetik, basoan segurtasunez ibiltzen ikastea eta mapa bat interpretatzen jakitea, baita iparrratza erabiltzea ere. Bestetik, aisialdian naturak eskaintzen dituen aukerak ezagutzea eta praktikara eramatea, ikasleen arteko talde lana bulkatzea, Sakanako natur guneak ezagutzea, Sakanako ikastetxeen eta ikasleen arteko harremanak sustatzea eta, azkenik, euskara bulkatzea.

Olias Nafarroako Zirkuituan

Larunbatean Motoziklismoko Open Koparako baliagarria den lasterketa jokatu da Los Arcosen, Nafarroako Zirkuituan. Aipatu lasterketa Zona Norte Abiadu-

ra Txapelketarako baliagarria izango da. Bertan lehiatzeko asmoa du Juanma Olias pilotu irurtzundarra (Kawasaki). Entrenamenduak 8:30etik aurrera hasiko dira eta lasterketak 12:40etik aurrera.

Zure herriko festen programa diseinatu eta inprimatzen dugu



%5eko deskontua bazkide diren udaletxeei

Eskatu aurrekontua 948 564 275 / 948 562 107

kultura >>

Iruñeko ganbera abesbatzaren **pot-pourri**

Igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan

Gure Musika izenburupean Iruñeko Coral de Camarak makina bat egileren eta hainbat garaiko eta estiloko doinuez osatutako kontzertua eskainiko du. “Gure musika ondarearen aberastasunarekin gozatzeko paisaia anitza eta aldakorra”.

Musika ondarea unibertsaltzat jotzen duenez, Ganbera Abesbatzaren gure lurretatik haragoko doinuak ere eskainiko ditu, herri musika eta “serioa” programa berean nahastuz. XVI. mendetik gaur egunera arteko doinuekin gozatzeko gonbitea egin du abesbatzak, David Gálvez Pintado zuzendariaren esanetara ariko dena.

Egitaraua

Tota Pulchra es Maria (Veni de Libano)	Gregoriano
Miserere	Eva Ugalde
Ave Maria a 8 v.	Tomás Luis de Victoria
Mon coeur se recommande à vous	Orlando di Lasso
Chi la Gagliarda	Baldassare Donato
Baci Soavi e Cari	Claudio Monteverdi
Laudi alla Vergine Maria	Giuseppe Verdi
Abschied vom Walde	Felix Mendelssohn
Cinco Canciones Castellanas	Fernando Remacha
De colores se visten los campos	
Arro, mi niño chico	
Dices que no me quieres	
Majo, si vas a los toros	
Qué contenta está la novia	
Karácsonyi bölcs dal	Lajos Bardós
Aran Lore	Aita Donostia
Montanyes del Canigó	Tradicional/Nadal Puig
Bili bili Bonbolo	Tradicional/Aita Donostia
Duerme Negro	Atahualpa Yupanqui/Emilio Solé
Agur Jaunak	Tradicional/Luis Morondo

Akordeoi topaketan hiru irurtzundar

Larunbatean Nafarroako akordioilarien aurreneko topaketa izan zen Pablo Sarasate kontserbatorioan. Nafarroako 13 musika eskoletako akordeoilariek parte hartu zuten, tartean Irurtzundar, hiru musikari eraman zituen. Denek elkarrekin 3 pieza jo zituzten. Gero ganbera talde gisa hirutan banatu eta aldi berean hiru emanaldi egin zituzten. Kalejira ere egin zuten.

Altsasuko Santo Kristori organorako moldatuta

Maiatzeko Gurutzeko ospakizunak zirela eta, Otadiko Kristo Deuna ermitan meza izan zen. Elizkizun horretan mustu zuen Lorenzo Gonzalez Urkizu kontserbatorioi irakasleak *Altsasuko Santo Kristori* doinuaren organorako moldaketa. Berak jotako doinuak altsasuarrek kantuz lagundu zituzten. Joakin San Roman haurra piztuzeneko gogorarazten duen kanta da.

Margo erakusketak Etxarrin eta Altsasun

Ikasturtea bukatzearekin batera, tailerretan ikasitakoa erakusteko garaia iritsi da. Etxarri Aranatzan bihar eta etzi pintura tailerrean aritutako margolariak euren koadroak erakutsiko dituzte. Kultur etxean izanen da, haien lanak sortzen ikusi dituen toki berean.

Asteartetik hilaren 25era, bestalde, Koldo Arnanz altsasuarren tailerrean aritutako ikasleen lanak ikusgai daude Iortia kultur gunean. 6 urteko txikienetatik hasi eta helduenak arte, guztiek

euren lanak zintzilikatu dituzte kultur gunean. Txikien akrilikoak, tenpera, argizailoak ikusteko aukera izanen da. Helduek ikatzak, grafitoak, pastelak, olioak, akrilikoak, akuarelak edota teknika mistoak erabiltzen dituzte haien margolanak sortzeko. Batzuk eta bestek denetariko gaiak lantzen dituzte. Egile sakandarrak dira gehienak, baina tartean bada Asparrenakoren bat ere. Eta erakusketa horri segida Itziar Nazabalen tailerreko ikasleek hartuko diote.



bazterretik

Galder Gonzalez Larrañaga

Espainia: sarea mugatzen

Internetek esparru zabalak ditu, guztiok ezagutzen ditugunak baino zabalagoak. Inafinituan hedatzen da, inoiz ez da posible web osoaren ezagutza edukitzea. Ezker eskuin, aurrera eta atzera, goian eta, batez ere, behean, dimentsio ugari kolekuada. Ezaugarri hauek informazioa demokratizatzen duena eta, aldi berean, kezkarri zaiona boterea duenari.

Azken urteotan hainbatsaiakera ikusi ditugu, mundu osoan zehar, esparru zabal hau mugatzen saiatzeko. Copyrighta izaten da, gehienetan, erabilitako aitzakia. Baina badira ere kritika politikoa egiteagatik ixten diren webguneak. Horretan, Espainiak, abantaila galanta du. Joan zen astean Ernaireren webgunea itxi zuen Espainiako Entzutegi Nazionalak. Argudioa, Xabier Lopez Peñari buruzko kartel bat izatea. Argudioa, noski. Errealitate abestelakoa da: Espainiak ezin du onar-

tu Interneten esparru libreak egotea, eta ezker abertzalearen kontrako dinamikan guztiak balio du. Egun batzuk geroago Burlata Herria webgunea ixteko agindua eman zuten. Argudioa: preso politikoei preso politikoa deitzea. Aurreko hausnarketa berdina balio du, noski. Bitxieta da azken honen itxiera “Prensa askatasunaren egunean” agindu zutela. Espainiak egun hau ospatu nahi zuen, bere modura, noski. Eta honetatik bi ondorio atera behar ditugu:

Lehenengoa da sarearen mugak ondo finkatu nahi dituela espainiar estatuak. Argi utzi nahi du ez duela onartuko disidentziarik eta orrialdeak ixteko arrazoirik ez duela eman behar. Zentzu honetan, disidentziaren webguneak blindatu beharko ditugu, kanpoan, herrialde neutroetako zerbitzariak erabilia. Ahal bada segurtasun sistemak ematen dituzten enprekin, eta erregistroak publikoki erakusten ez dutenekin. Sarearen muga itxi dezakete, baina gehiago kostatuko zaie hori egitea.

Bigarrena da bi itxiera hauek oso merke atera zaizkiela. Ez da egon kazetariaren nazioarteko talderik honen salaketa eginez. Ez da egon komunikabide sarerik diktadura salatzen. Ez da egon ez zalapartarik ez babes sarerik. Eta honi ere buelta eman beharko diogu, kalean “Herri Harresia” sortu dugun bezala, sarean ere “Sare Harresia” eraikitzen. Webguneekin errazagoa da migratzea, mugitzea, ekiditea. Eta horretarako lagunak behar dira, leku ezberdinetan.

belexe online
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepassoa: albisteak, kirolak, Ximona gaztetxea, autopista elektrikoak, Isabel Elizalde...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!



Anitza eta erraldoia

Herenegun kontzertua eskaini zuten 250 gaztek. Altsasuko Burunda pilotalekua bete egin zen musika ikuskizunaz gozatzeko. Ikasturtean barna ikasitako piezak jo zituzten Aralarako Mikel Donea institutuko DBHko 1., 3. eta 4. mailetako 200 ikaslek eta Iruñeko Biurdana eta Barañaingo Alaitz institutueta ikasleak ere.

Amona lapurrak, komedia eroaren protagonistak

Larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Karretabidea antzerki taldea

Tarima Beltzak antolatutako Teatres, III. Altsasuko Antzerki Amateurzikloa bihar jarriko da martxan. Hurrengo hiru larunbatetan Iortia kultur guneak emanaldi bana jasoko du. Nafarroako 3 antzerki talde amateurren lanekin gozatzeko gonbitea egin zuten zikloaren aurkezpenean Tarima Beltzako Juan Manuel Herre eta Mertxe Herrerak. Hiru emanaldietara joan asmo duenak 12 eurotan txartel orokorra eros dezake; bestela, emanaldi bakoitzagatik

bosna euro ordaindu beharko dira.

Zikloa komedia ero batek zabalduko du. Barasoingo Karretabidea taldeak *Geriatraco casi perfecto* antzezlanaren taularatuko du. Protagonistak 5 emakume adindu dira, geriatrako batean bizi direnak. Haietako baten alabak hipoteka ordaintzeko arazoak ditu eta hari laguntzeko emakume adinduek banku bat lapurtzea erabaki dute. Dena behar bezala ateraz gero, guztiak bazkari botika hartzeko garaian bueltan izanen dira. Ia perfektua den lapurreta horretan depresioaren eta diabetesaren kontrako tratamenduak, hipotekak, Euriborra eta KPIarekin nahasten dira.



Eta gero afaltzera

Antzerkia eta mantela lotzeko aukera aparta dute bihar Iortia kultur gunean joaten diren ikusleak. Antzerkian joaten diren ikusleak sarre erakuste hutsarekin %15eko deskontua izanen dute Biltoki, Basomutur, Arkangoa, Irubide, Iruñabide, Il Padrino edo Kaixo jatetxeetan afaltzen badute. Aukeraketa errazteko antzezlanaren sarreran jatetxe bakoitzaren eskaintzaren berri zehatza ematen duen esku-orria jasoko du publikoak.

Bihar mustuko den zikloaren hiru saioetan (maiatzak 11, 18 eta 25ean) baliatu ahalko dira ikusleak deskontu horretaz. Horretaz aparte, garagarrilaren 8an Garik Berria egunkariaren alde eskainiko duen kontzertuaren ondoren ere afaltzera merkeago joate-



ko aukera izanen da.

On Egin egitasmoa Altsasuko Jatetxeen, Altsasuko Udalaren eta Bierrik Fundazioaren arteko elkarlanaren ondorioz sortutako egitasmoa da. Kultura eta gastronomia lotuz, tokiko ekonomia mugitzeko asmoa duen egitasmoa da. Beraz, funtzioak eta jatekoak, On Egin

Nafarroako Gobernuaren debekuaren aurrean emaguzue zuen baimena

Bazkidetu!

euskalerrriairratia.com
00 34 948 17 01 51

Altsasuko Festak
KARTEL LEHIAKETA 2013
HAUREN MODALITATEA

GAIA
Altsasuko festak 2013

NORI ZUZENDUA
Altsasuko ikastetxeetako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH 1. eta 2. mailako ikasleak.

EPEA
Iortia Kultur Gunean aurkeztuko dira lanak ekainaren 18ko eguerdiko 14:00ak baino lehen.

INFORMAZIO GEHAGO
Kultura Zerbizua | 948 56 42 72 | kultura@altsasu.net

MAIATZAK 11, LARUNBATA - 20:30 ANTZERKIA

GERIATRACO CASI PERFECTO
KARRETABIDEA

Frontoiko zeharabidea, z.g. - 31800 - Altsasu - 948564272 - iortia@altsasu.net - www.facebook.com/iortia

LA TRAMA
OSTIRALA IGANDEA
10 22:00 12 20:10

Sarreerak salgai: Ielibatilo - 019 - entradak.com

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 55%	euria: 10%	euria: 20%	euria: 13%	euria: 20%	euria: 86%	euria: 85%
Min: 7 Max: 12	Min: 4 Max: 13	Min: 5 Max: 11	Min: 5 Max: 16	Min: 6 Max: 16	Min: 8 Max: 12	Min: 6 Max: 12

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	25.3	1.4	13.4
Altsasu	24.5	3.5	2
Aralar	17.5	0.2	11
Urbasa	21	-2	3.2

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
10	18	25	31

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Kultur berriak gure udaberriko koloreekin

Guaixe KOMUNIKAZIOA
diseinua inpresioa

948 564 275

argi@guaixe.net

>> 11 galdera

Iñigo Azpeitia
Berriain nekazal etxea. Etxarri.

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

1. Zergatik pentsatu zenuen Berriain nekazal etxea denda irekitzea?

Beti egon naiz animaliekin eta asko gustatzen zaizkit. Ikusten nuen inguru honetan, Altsasu eta Irurtzun artean, gauza hauek saltzeko hutsune bat zegoela eta ideia ona iruditu zitzaidan. Izena lekua alokatu genuenean pentsatu nuen, atea irekitzean Berriain mendia ikusten zen eta izen polita iruditu zitzaigun.

2. Zer aurkitu daiteke dendan?

Nekazaritza eta abeltzaintzarako behar den ia-ia guztia. Ia esaten dut, oraindik jendeak ez dauzkat gure gauzak eskatzen dituelako. Baina ekartzeko asmoa dugu. Denetarik saltzen dugu: pentsua, landareak, baratzenako landareak, ongarrria, etab.

3. Betidanik izan duzun ideia da?

Bai. Lekua alokatu genuenean, garaje bat izan zenez, makinaria eta horrelako gauzak zeuden. Orduan, aprobeztatzeko alokatzea edo pentsatu genuen. Baina, lehenengo ideia dendarena izan zen.

4. Zertan egiten zenuen lan?

Zurgina izan naiz; altzariak eta abar muntatzen nituen. Susundegin lan egiten nuen, eta lehenengo kaleratzeekin, lehenengo garbiketa ideologikoarekin, kalera bota ninduten. Gero lana aurkitu nuen, baina ideia hau neukan. Urteak neraman ideia honekin, eta emandako diruarekin, langabezian nengoanean aprobeztatzearabaki nuen.

5. Uste duzu zure kabuz jartzea



krisi ekonomikotik ateratzeko modua izan daitekeela?

Hau zen nire ideia, gauza pertsonala. Beste egoera ekonomiko batean ez dakit irekiko nukeen; ez dakit urratsa emango nukeen. Igual Susundegitik bota ez baninduten, segur aski, ez nuke horrelakorik pentsatuko. Duela hiru urte lanean egon nintzen ere, baina dagoeneko pentsatzen hasia nintzen.

6. Zaila izan da denda martxan jartzeko urratsa ematea?

Zaila ez, luzea. Azken finean ia dena besteen esku uzten duzu: arkitektoak proiektua egiten dizu, eta arautegia ezagutzen duenez, dena egiten du. Diru-laguntzak eta gestoriak bideratzen dizkizu. Luze egiten da. Ilbetez zabaltea nahi genuen, azkenean martxoan zabaldu dugu. Guk ez dugu obra asko egin behar izan.

7. Laguntza izan duzu?

Nire langabezia kapitalizatu dut. Emaztea eta bion artean egin dugu denda, eta horregatik ere, inbertsioa egiteagatik, zerbait itzuliko digute.

8. Zeintzuk dira zure kabuz lan egitearen alde onak? Eta txarrak?

Ez dakit, oraindik denbora gutxi daramat. Baina orain dela hamabost urte edo, hiru urtez autonomo izan nintzen, untxi baserri bat izan nuen. Horrelakoetan, lan

asko egin behar duzu, baina dena zuretako da. Orduan konpentsatzen duzu: ateratzen bada zuretako da, eta ez bada ateratzen zure errua da.

9. Proiektuarekin hasi zinenetik une txarrak bizi izan dituzu? Eta politikak?

Momentu txarrak ez, baina gastuekin eta larritzen zara. Gainera, ilbetez ireki nahi genuen eta hilabeteak pasatzen dira, eta beste faktura bat ordaintzen duzu... Orduan langabeziaren beste hilabete bat hartu behar duzu. Baina hasten zaren ilusioa osopolita da, eta egiten duzuna zuk nahi zenuena denean. Kezkak ere badituzu. Izan ere, daukazun diru guztia sartzen duzu eta ez dakizu nola aterako den. Hori hemendik urte batzuetara ikusiko da. Eta orduan esango dugu ongi edo gaizki joan den.

10. Etorkizunean pentsatzen duzu?

Orain, adibidez, lan asko dago, baratze eta landatzeko garaia da, baina neguan, agian, ez da hainbeste saltzen. Lehenengo urtea nola doan ikusiko dugu, eta gero gerokoak.

11. Noizbait pentsatu duzu denda bat irekiko zenuela?

Baserriren bat jarriko nuela pentsatu izan dut beti, edo abeltzaintzan ariko nintzela, baina dendaria izango nintzela ez.

Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?



Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixe egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo **Bierriken bulegora** ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea